



uk

62. zenbakia / 2003 maiatzak 30

BAPIRUKE

UDALEKU IREKIAK

COLONIAS ABIERTAS

udan ere **euskaraz!!**

NORI ZUZENDUA: 5-12 URTE BITARTEKO UME EUSKALDUNEI

PREZIOA:

1. TXANDA: BAZKIDEEK 37€ / EZ BAZKIDEEK 50€
 2. ETA 3. TXANDAK: BAZKIDEEK 75€ / EZ BAZKIDEEK 100€
 (PREZIOA TXANDA BAKOITZARI DAGOKIO)

NOIZ:

TXANDA 1: **EKAINA 21-25**
 TXANDA 2: **EKAINA 28-UZTAILA 9**
 TXANDA 3: **UZTAILA 12-23**

IZENA EMATEKO:

BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA
 KARITATE KALEA 1, 10. BULEGOA
 48990-ALGORTA
 TEL: 944 914 357

Antolatzailea / Organizador:



Laguntzailea / Colaborador:



«Zekena eguzkia balitz, denok ilunpean» (euskal atsotitza)

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Natura harigarria. Juan Luis Markaida.
6. PLAZA. Ongietorriak Ibilaldia 2004ra. Leihatila, Josu Esnaola.
7. LEHEN ETA ORAIN. Gorizko hondartza.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Haurren euskal jaia Getxon. Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Eguneko eskaintza. Juan Luis Markaida.
30. BERBETAN. Juan Ignacio Perez Iglesias. Unai Brea.
32. ERREPORTAJEA. Izatezko bikoteak. U. A.
34. FOTOGRAFIA. Getxoko San Isidro eguna. Asier Mentxaka.

KULTURA ETA AISIA

38. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea eta Getxoko Kultur Etxearen zinema eskaintzaren balantzea.
39. MUSIKA. Getxoko blues jaialdia. Diskoen erreseinak.
40. LIBURUAK. Esti Ezkerraren zutabea eta poesiako azken liburuak.
41. KOMUNIKAZIOA. Egunkariak eta irakurleak.
42. SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.
43. ELKARRIZKETA. Skunk Funk-eko Pedro Roman. Unai Brea.

EUSKARAZ

44. AKABUKO PUNTE. Maria Teresa Bidaurrezaga, Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
46. URIBERTSOAN. ALBEkumeak eta gainera Arrate Illaroren bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan pintxo bat? Esaterako Areetako Tatos kafean.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. San Inazio eskola, 1924. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Martin Fiz. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Asier Mentxaka (Aixerrota)



30 Juan Ignacio Perez Iglesias

Berbetan

"Iñako" deitzen dute eta EHUKO errektore berria da. Kargua hartu zuenetik idatzizko komunikabide bati eman dion lehenengo elkarrizketa.



24 Euskal jaia




34 San Isidroak



21 Patxo Igartua



43 Skunk Funk



54 Martin Fiz

Estatu Batuetako kosmetika konpainiak asmo enpresariala emakumezkoak behar ditu

ARLOKO PROFESIONALENTZAT

- ¥ Kalitate handiko produktua
- ¥ Erosketa zuzena, bitartekaririk gabe
- ¥ Irabazi onak
- ¥ Bezeroaren satisfakzio maila bikaina: %100
- ¥ Ez da salmenta minimorik bete behar



PARTIKULARRENTZAKO

- ¥ Orientazioa eta etengabeko laguntza
- ¥ Lan egiteko leku finkoa
- ¥ Dirusariak
- ¥ Oinarritako materiala, (inbertsio oso txikia eta berreskuragarria)
- ¥ Formazio berezitua enpresak ordainduta

40 urteko eskarmentua
 enpresarial ekimen arrakastasuetan!!

Elkarrizketak egiteko txanda eskatzeko deitu:

626 217 136 (Bakarne)

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel
FOTOGRAFIA: Asier Menbaca
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Bittor Egurola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algotako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buenabea, Jabi Zabala, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarna Lezoan Euskaraz Ekaritza
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da

**Aldizkari honek Bizarna Lezoan Euskaraz Elkartean dirulaguntza jasotzen du**
Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta

**TOPAGUNEa**

**GETXOKO UDALA**
Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

**Leioako Udala**
Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskaraz Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

**BERANGOKO Udala**
Aldizkari honek Berango Udalaren dirulaguntza jaso du

**Erandioko Udala**
Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

**Erandioko Udala**
Aldizkari honek Erandioko Berbots Euskaraz elkartean laguntza jasotzen du

**Bizkaiko Foru Aldundia**
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

**Fundación Grupo Eroski**
KONSUMITZAILARENENTZAT

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du**

UK
Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK 2095 0121 10 91 02483676
Boluntzarreta

gugeu

Beste UK bat

Hala da irakurle, honezkeroko beste UK bat zure esku artean, aurten argitaratu dugun zortzigarren zenbakia hain zuzen ere. Ez dakigu zergatik baina ale hau hezkuntzari oso lotua atera zaigu. Batetik, EHUko errektore berriarekin egon gara. Kargua hartu zuenetik idatzizko komunikabide bati eman dion lehenengo elkarrizketa aldizkari honetako orrialdetan aurkituko duzu.

Bestetik, San Nikolas Ikastola aurten bere 40. urteurrena ospatzen dabil. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula! Gure eskualdean ehundaka, milaka dira ikastola honetan euskaldundutako eta alfabetutako lagunak. Lan ikaragarria egin du euskararen alde ikastola honek urte luze hauek guztietan. Beraz, eskerrik asko eta zorionak San Nikolas ikastola! Eta jakin ezazu irakurle, efemeride gogoangari hau ospatzeko jai handia antolatu dutela ikastolakoek ekainaren 11n eta 12an. Sorpresarik ez da faltako. Esaterako, garai batean ospe handia lortu zuen ikastolako Kimetz abesbatza egun berezi honetarako propio atzera elkartzeko dela jakin dugu. Jakina, gozatzeko askoz ere gauza gehiago egongo dira egun horietan (ekitaldien berri 47. orrialdean).

UK-ko irakurle asko eta asko San Nikolasen ikasitakoak dira. Eta ez irakurleak bakarrik. Aldizkari hau egiten dugun lantaldean, beharginen gehiengoak San Nikolasen ibilitakoa da. Beraz badugu danok zer ospatu ikastolaren jai egun horietan.

Baina gure eskualdean San Nikolasekoa ez da ikastola bakarra. Hortxe ditugu urte osoa lanez gainezka, jo ta ke beharren ibili diren Ander Deuna eta Betiko ikastolako lagunak. Ez dute lan makala izan, euren gain hartu dute-eta aurtengo Ibililadiaren ardura. Hitzordua, egunotan da, maitzaren 30ean Leioan hain zuzen ere. Aukera ederra gure euskalduntasuna adierazteko. Ez hutsik egin!


Han, San Nikolas ikastolaren urteurren jaietan eta Leioako Ibilaldian elkar ikusiko dugulakoan, agur bero bat irakurle!

UK-ko lantaldea

gutunak


Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuen testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxe: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

Goizero erosi > berria



Natura harrigarria / Gure kostaldean ugaria da harearria. Itsasoko haizeak ekarritako kresalak harri bigun eta porotsu honetan “higadura edo erosio albeolarra” eragiten du: horrela deitzen zaio fenomeno honi higadurak sortzen dituen formek albeoloen itxura ei daukatelako. Bada, albeoloak baino mamu haserretu baten aurpegia aurkitu du Juan Luis Markaidaren begirada zorrotzak haitzotan. / Argazkia: Juan Luis Markaidea

Leihatila

> Josu Esnaola

Europa

Berriro ere ate joka dauzkagu hauteskundeak, oraingo honetan Europako legebiltzara osatzekoak. Eta harritu egiten naiz ikustean zelako naturaltasunaz onartzen dugun erabakiak gugandik gero eta urrunago hartzearena, erabaki horietan gero eta zeresan gutxiago izatearena, elite berriak sortzearena.

Aitortu behar dut neure burua abertzaleztat daukadala, eta abertzalea naizen aldetik euskal estatu baten aldekoa naizela. Baina ez Estatuan sinisten dudalako, Estaturik osatutako mundu honetan euskara eta euskal kulturak iraungo badu horrelako egitura politikoko baten babesa beharrezkoa begitantzen zaidalako baizik. Eta batez ere, deszentralizazioan sinisten dudalako, erabaki guztiak zenbat eta gertuago, parte hartze zuzena izateko, politikoa kontrolatzeko eta egindakoagatik edota egin gabekoagatik kontuak eskatzeko aukera orduan eta handiagoa delako.

Goitik behera ari dira eraikitzen, eta behin bera bahitu zuten legez, egun Europak gure erabakitze ahalmena bahitu nahi digu herritarri. Sasoi bateko "Botere guztia Sovietentzat!" aldarriak zentzua galdu duen honetan beste hau proposatu nahi dut, demokraziaren izenean: "Botere guztia udalentzat". 4

IRITZIA

Maiatzaren 30ean Ibilaldia 2004 ospatuko da Leioan. Aurtengo jaialdiaren antolatzaileak diren Betiko eta Ander Deuna ikastoletako lehendakariak euren gogoeta ekarri digute.

Zatozte Ibilaldia 2004ra

Gure eskualdean Ikastola eredu sakonago ezagutaraztea izan da aurtengo Ibilaldirako finkatu dugun helburu nagusia. Ander Deuna eta Betiko Ikastoletan beti izan dugu argi Ikastola eredu ez dela ohiko ikasgaiak euskaraz irakastea bakarrik, zerbait gehiago dela. Geure ikasleak euskaraz eta euskaldun hezi nahi ditugu: euskara ondo menderatuz, euskararen eta euskal kulturaren transmisioarekin, garapenarekin eta indartzearekin konprometitua izan daitezten, bai eta Euskal Herriko errealitate historiko, sozial, ekonomiko eta kulturalako partaide. Beti ere, Europako testuinguruan bizitzeko eta lan egiteko beharrezkoak dituzten hizkuntzak menperatuz.

Horrela, Ikastolatik kanpo, gure herrietan, euskalgintza eta euskal kultura sustatzeko dugun apustuaren garrantzia argi uzten ahalegintzen gara, esku pilota, bertsoaritzak, euskal dantzak, euskal jaiak eta abarretan modu aktiboan parte hartuz. (...)

Ander Deuna eta Betiko ikastolentzat ezinbestekoak dira berrikuntza eta kalitatea bere hezkuntza proiektua ezagutzera emateko. Horrela, gure eguneroko zeregina, hezkuntza, goratzen duten ekitaldiek ezaugarri horiek behar dituzte, Ibilaldiaren aurretik antolatu ditugunek izan dituztenak, hain zuzen.

Eta hori guztia, Euskal Herrian, hezkuntza-sistema propioaren eraikuntza zeregin eta helburu dugu-

nok, euskal nazioaren eraikitze-prozesuan hezkuntza ardaztat ulertzen dugunok, Euskal Herriko leku guztietan, Maulen zein Sopelanan, Tuteran zein Leioan ikastolak ezinbestekoak direla argi utzi nahi dugu.

Bestetik eta bigarren helburutzat, bi ikastolek dituzten hezkuntza proiektu berezi eta ezinbestekoak bultzatzeko beste modu bat da Ibilaldia. Bereziak direla diogunean zera adierazi nahi dugu, historian oztopo ugari gainditu behar izan dituzten herri ekimenak direla.

“Oraindik ere eraso mediatikoei aurre egin beharrean gaude”

Sorreran, frankismoaren garaian, oztopoak onarpen legala lortzeko, gero gure eraikuntzak egiteko behar genuen dirua eskuratzeko, publikazioaren garaian zatiketak... oztopo ugari ibilbidean, benetan; eta oraindik ere euskara eta euskalgintza arloan lanean dabilzan beste erakunde asko bezala, erasoi, mediatikoei zein bestelakoei, aurre egin beharrean gaude.

Hau guztia errealitate bihurtzeko eta batez ere, kalitateko hezkuntza eskaintzeko beharrezkoak diren instalazio moderno eta egokiak izateko, laguntza behar dugu eta laguntza hau lortzeko ikastola munduan ohitura dugun moduan elkartzaren bidea jorratzen dugu: Ibilaldia.

Horrela, Betiko ikastolan betiko ametsa eta beharra izan den frontoi-kiroldegi estalia eraiki dugu, eta gerora begira bigarren lerrorako egokitzeko solairu berria eraiki beharra dugu. Ander Deuna ikastolan, berriz, jarri ditugun helburuak liburutegia eta teknologia gelak zaharberritzea, Bigarren Hezkuntzako ikasleak eraikin berean elkartzea eta haurtzaindegia egokitzzea dira, besteak beste.

Eta hori guztia, Ibilaldiaren leloak adierazten duen moduan, Ander Deunak eta Betikok *alkarregaz landu* dugu azken urte honetan, horrela aritzea ikastolen ezaugarrietako bat baita. Eta leloaren bigarren hitzak adierazten duen moduan, Ibilaldi egunean LEIOARA elkar helduta etortzea eskatu nahi dizuegu.

Azkenik, gure izenean, eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu Ibilaldira zatozten herritar guztioi. 4

Iñaki Calle (Ander Deunako ikastolako lehendakaria)
Koldo Tellitu (Betiko ikastolako lehendakaria)

[lehen]



[orain]



Iraganez doa denbora* beti / GORLIZKO HONDARTZA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

photoshop > dekorazio berria San Inazio elizan





Argazkian, erakusketan ikusi daitezkeen irudi batzuk



ekimena > Plentziako historiaren gaineko erakusketa

Plentziako Turismo Bulegoak udalerriko historiaren gaineko jardunaldiak antolatu zituen maiatzaren 18tik 30era. Jardunaldiotan Plentziako argazki zaharren, bai eta margolarien lanak batzen zituen erakusketa jarri zuten ikusgai erakusgelan. UK-kook ez dugu galdu gura izan aipatutako erakusketa, eta argazki zaharren artean, denboran atzera murgildu gara Plentziako historiako eraikin eta paisaien artetik. Goiko argazkietan, erakusketak batzen zituen 100dik gora argazkietatik batzuetara hurbildu gura izan dugu eta zuoi ekarri, edozein arrazoi dela medio, nork edo nork erakusketa hori ikusteko aukera galdu badu, gutxienez zatitxo bat gozatu dezan. Argazki gehienak kirol, dantza eta abesbatzenak dira, eta erakusketan ikusgai ipinitako argazkirik zaharrena 1920. hamarkadakoa da, Plentziako Futbol taldearena. ^m

OSAEIDE?HORTZ?KLINIKA
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskualdea 94 94 430 76

Jose Unzurrunzaga Astigarraga

HORTZ ?KLINIKA

Tel. & Faxe: 94 460 06 21
Andikoetxe 24, behea ezkerre
ALGORTA

BEHIN BATEAN

LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxe: 94 430 74 03

jendea > Guda zibila eta errepresioa hitzaldia



Argazkian, Iñaki Egaña historialaria hitzaldia hasi baino apur bat lehenago

Egizu Getxo Euskaldun egitasmoko arduradunek “Guda Zibila eta errepresioa Euskal Herrian” hitzaldia antolatu zuten. Berbaldia maiatzaren 20an egin zen Aldai Kulturgunean (Algortan). Iñaki Egaña Historia ikertzailearen eskutik egin zen hitzaldia eta hamar bat lagun bertaratu ziren. Egizu egitasmoak 7-8 berbaldi antolatu ditu aurten, gizarte mugimenduek egiten duten beharra ispilatzeke asmoz, eta zenbait gai jorratu dituzte: ekologismoa, sindikalismoa, mugimendu antimilitaristak, inmigrazioa, politika internazionala... Horregaz batera beste ekintza batzuk ere prestatu ditu: txalaparta, yoga eta historia ikastaroak. Hitzaldi hau azken aurrekoa izan da, eta beraz, adi egon zaitezte urteko azken hitzaldia ez galtzeko! ^m

kale izendegia > Gustavo Adolfo Bécquer



Getxoko Andra Marin dagoen kale bati idazle erromantiko espainiar honen izena ipini zioten. Gustavo Adolfo Bécquer (benetako abizenak Domínguez Bastida zituen) Sevillan jaio zen 1836an, eta Madrilen zendu zen 34 urte baino ez zeuzkala. Intimismoaren idazlerik nabarmenetarikoa genuen, eta horrek asko urrunduarazi zion bere garaikideengandik; dena dela, Bécquer-en obrek eragin handia izan zuten ondorengo literaturan, batez ere, Juan Ramón Jiménez poetaren eta 27ko Belaunaldiaren gain. Lirismo sakoneko poema laburrak (*Errimak*, 1871), prosaz idatzitako lanak (*Kondainak*), eta paisaia-deskribapenak (*Nire gelatik*, 1864) argitaratu zituen, aipatutako lehenengoa hil ostean; Bécquer-rek Veruelako monasterioan idatzi zuen *Emakume batentzako gutun literarioak* izeneko liburua. ^m

AIBOA HORTZ KLINIKA

Prezio bereziak!
Deitu!

• 94 491 46 75
• 619 844 202

Koleg: 6.465 Koleg: 1.008
Bihotz Sakratua 2 A, behea ALGORTA
* Getxoko epaitegien aurrean

etorri eta ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kizol moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

Gazte Bulegoa 6 hilabetez

Urte erdi igaro da gazteentzako Getxoko **Informazio Bulegoa** zabaldu zenetik. **1.700 bisitaritik gora** hartu ditu ordutik hona eta galdera ugarien **bidaien eta enpleguaren** inguruan jaso ditu

Pasa den azaroan zabaldu zituen ateak Getxoko Gazte Informazio Bulegoak, eta urte erdi pasatxo bete duenean, egindako bidea aztertu dute arduradunek. Getxoko udalaren I. Gazte Planak barne dituen ekintzetako bat da Gazte Informazio Bulegoa, eta egiteko nagusia du gazteek behar duten informazio guztia aurkitzea, lanen, beken, etxebizitzaren, sexualitatearen, Europako programen eta beste zenbait gairen inguruan. Bestalde, aholkularitza, txartelen jaulkipena, bidaiateka, Zerbitzu Bereziatarako orientazioa eta bolondresentzako zerbitzuak ere eskaintzen ditu.



Argazkian, Gazte Informazio Bulegoaren egoitza den Tangora Etxea

Getxoko udalak pasa den legealdian 155 ekintza estrategiko batzen zituen I Gazte Plana osatu zuen, eta ekintza estrategiko horietako bat Gazte Informazio Bulegoa izan zen. Batez ere 16 eta 30 urte bitarteko gazteei begira sortu zen Gazte Bulegoa 2003ko azaroan. Bulegoaren betebeharra edo helburua gazteei behar duten informazio guztia lortzen laguntzea da, informazio hori emanez edota berori lortzeko bideak eskainiz. Gaur egun, lagun bi dabilta Gazte bulegoan beharrean.

Informazioa eta Zerbitzuak

Gazte Bulegoan lanaren, beken, etxebizitzaren, sexualitatearen, astialdiaren, Europako programen eta abarren gaineko informazioa lortu daiteke. Honeguz batera, aholkularitza, txartelen jaulkipena, bidaiateka, zerbitzu

berezietarako orientazioa eta bolondresentzako zerbitzuak eskaintzen ditu. Mezu elektronikoko bitartez eta sakelekorara ere bidaltzen du informazio Gazte Bulegoak.

Sei hilabete pasatxoko ibilbidean 1.770 bisitatik gora jaso ditu: batez beste eguneko

«Bisitarien ezaugarrietako bat da, denboraz, ohiko bisitari bihurtzen direla»

12 bat gazte hurbildu dira Gazte Informazio Bulegora. Bisitarien inguruan, Elena Coria Kultura zinegotziak zera aitortu digu, *“bisitarien ezaugarrietako bat denboraz ohiko bisitari egiten direla da, hau da, behin Bulegoaren zerbitzua ezagutu ondoren, etortzen jarraitzen dute”*.

Gazteek egindako informazio eskaera edota kontsulta moten artean Bidaiatekan egindakoak %37 izan dira, enpleguaren ingurukoak %31, Gizarte Bizitza alorrekoak %14, aisiagaz zerikusia daukatenak %10, eta hezkuntzari dagozkionak %6. m

DATU BATZUK

- 1.700 bisitatik gora 6 hilabetez
- 12 bat pertsonak bisitatu dute egunero
- **Kontsulta motak:** Bidaiateka %37, Enplegua %31, Gizarte bizitza %14
- **Non:** Tangora Etxea, Algortako Etor.98
- **Norentzako:** 16-30 urte bitarteko pertsonentzako batez ere
- **Ordutegia:** 11:00-14:00 eta 17:00-21:00
- **Harremanetarako:** 94 491 01 14 edo gaztebulegoa@getxo.net

Ingurumeneko foroa osatuta
Kontsultarako erakunde hau zenbait esparrutan jarduten duten **20 pertsonak** eratuko dute



Foro berriaren kideak aurkezpenaren egunean

Getxoko Ingurumen Foroa osatu zen maiatzaren 20an. Getxoko Agenda 21 egitasmoan aurreikusten zen kontsultarako erakundea da Ingurumeneko Foro hau. Agenda 21 delakoa udalerraren garapen orekatua lortzeko oinarriak zehazten dituen egitasmoa da.

Ingurumeneko Foroaren egiteko nagusia da Agenda 21en zehazten diren ildo estrategikoei jarraipena egitea, eta era berean, beharrezkoa izanez gero, bertan agertzen diren ekintzen aldatetaren bat proposatzea, eta ekarpen berriak sortzea. Ingurumeneko Foroa urtean bitan batzartzea da asmoa, baina horrez gain,

azpibatzaileak sortuz gero, hauek gura dutenean eta nahi duten maiztasunagaz elkartuko lirarteke.

20 pertsonako foroa

Kontsultarako erakunde hau udalerriko zenbait esparrutako 20 ordezkari osatzen dute: udaleko 5 ordezkari (alkatea barne), enpresa eremuko 2, talde ekologista eta naturzaleetatik 3, giza, kirol eta kultur elkarteetako beste 3, hezkuntzako 2, unibertsitateko, ezinduen elkarteetako eta kontsumitzaileen elkarteetako ordezkari bana eta ingurumen arloan izen onak dituen bi aditu; guztira 20 lagun. m

UDALAREN LAGUNTZAK KULTURA ETA KIROL ELKARTEENTZAKO

Getxoko Tokiko Gobernu Batzarrek kirol eta kultur elkarteetako emateko urte osorako diru-laguntzak onartu ditu. 41 dira laguntzak jasoko dituzten kirol taldeak, 23 kirol esparrutako taldeak dira, eta guztira 239.622 euroko aurrekontua banatuko da. Besteak beste, Getxo Rugby taldeak 37.500 euroko jasoko ditu, Getxo saskibaloia taldeak ia 24.700 euro, Arenas futbol taldeak 17.000 euro, Getxo futbol taldeak 15.120 euro, eta Algortako Arraun taldeak 12.400 euro. Bestalde, Kultur elkarteetako dagokienez, denetara 77.855 euro banatuko ditu udalak 21 elkarteren artean: kirol elkarteetako ematen zaizkien aurrekontua baino txikiagoa da, baina Iñaki Zarrakoa alkateak azaldu duenez, *“kultur elkarteek ekintza jakinetarako urtean zehar ere laguntzak jasotzen dituzte”*. Besteak beste, Antzezaleak elkarteak 10.663 euro jasoko ditu, eta Bihotz-Alai abesbatzak ia 6.300 euro.

UDALEKU IREKIAK EKAINA ETA UZTAILAN

Bizarra Lepoan euskara elkarteak Bapiruke egitasmoaren bitartez euskarazko udaleko irekiak antolatu ditu ekaina eta uztaileko. Udalekuak hiru txandatan egingo dira eta 5 eta 12 urte bitarteko ume euskaldunei begira prestatu dira: 1.go txanda ekainak 21-25, 2. txanda ekainak 28 uztailek 9 bitartean eta 3.txanda uztailek 12-23.

Informazio gehiago: 94 491 43 57

GORPUZTI EGUNEKO JAIA PORTU ZAHARREAN

Algortako Portu Zaharrean Gorputzi Eguneko jaia ospatuko da ekainaren 13an, domeka. Meza Santua izango da egitarauko lehen ekitaldia, eguerdiko 12:00etan. Ordu bat geroago Biotz-Alai abesbatzak emanaldia eskainiko du, eta horren ostera, sardinada prestatu dute. Arratsaldean, osterara, Chamuyo taldearen musikak alaituko du Portu Zaharra.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurritan.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

San Nikolas

ikastolaren 40. urteurren ospakizunak

Berrogei urte betetzen ditu aurten San Nikolas Ikastolak eta buru-belarri dabilta ekainaren 12an egingo den jaia antolatzen. 10:30ean ikasleek daborren doinu bezala dabilte Algortako kaleak, San Nikolas enparatzen hasi eta ikastolara arteko bidea. 12:00etan ekitaldi nagusi bat egingo da eta hezkuntza eta politikako arduradunak bertaratzea espero dute. Orain 40 urte ikasle izandakoei omenaldia eta oroigarria eman go zaie, garai hartako Kimetz abesbatza ere batu egin da ospakizunera eta ikastolako umeen koroak 40. urteurrenako sortu den abestia kantatuko du. m



BEROGAILU ETA ITURGINTZ -



T: 430 53

Sarrikobaso 15

Iñaki Pola > Getxo Futbol Taldeko entrenatzailea

“Faduratik urrun, mailako onenatarikoak izan gara, baina etxean jokatzera zigorra zen guretzat”



Iñaki Pola Getxo Futbol Taldeko entrenatzailea

32 urteko Iñaki Pola astrabudutarrak eduki du denboraldi honetan Getxo Futbol Taldea entrenatzeko ardura. Denboraldi hasieran 5 onenen artean geratzea zuten erronka, baina 10. postuan amaitu du Lurraldeko Ohore mailan jarduten duen taldeak. Futbol jokalaririk izateari 21 urtegar utzi zion Polak, entrenatzaile izatea zuelako gogoko, jokalaririk legez Ugeragan, San Inazio, Loiu eta Apurtearen ibili ondoren.

—Denboraldia ez ei da oso ondo joan.

—Nik, pertsona moduan, atsekabe handia daukat. Oso gogotsu eta itxaropentsu heldu nintzen, iaz Ugeraga hurrengo mailara igotzen lagundu nuen, eta aurreko urtean Barakaldoko filialagaz ere gora egin nuen. Gogo handia neukan, baina behar egiteko baldintzek edo baliabideek ez didate ohituta nagoen beharra garatzen utzi, eta horrek taldea eragin du, merezitako postuan geratu gara...

—Merezita-merezita...

—Azken finean merezitako postuan. Guk entrenatzeko eta lehiatzeko baliabide batzuk kontuan hartuta antolatu genuen denboraldia, taldea eta erronkak. Baina bestelako baliabide batzuk eduki ditugu, eta osatu genuen taldea ez da horietarako egokia izan, planifikazio txarra izan da. Ez dugu entrenatzeko eta

lehiatzeko zelairik eduki. Egia da Getxo baliabide aldetik oso aberatsa dela, baina oso pobrea kirol planifikazioari dagokionez, eta futbolari begira, beste udalerririk batzuetan ez bezala, hemen futbola ardi beltza dela dirudi. Faduratik kanpo jokatu dugunean taldeak oso maila ona erakutsi du, mailako onenatarikoak izan gara, baina etxean jokatzera guretzat zigorra zen. Getxo futbol taldeak daukan arazo nagusia hurrengo da: udalak kosta ala kosta bedar naturaleko zelaia mantendu gura duela. Kostu handia dauka, baina, zela hori zaintzeko, eta eurek onartzen duten aurrekontua ez

«Beste udalerririk batzuetan ez bezala, badijadi Getxon futbola ardi beltza dela»

da nahikoa. 9 taldek entrenatu eta lehiatu behar dute bertan, ereintza ekaina-uztailean egiten da, txapelketa irailean hasten da, eta azarorako zelaia guztiz suntsituta dago.

—Beste taldeakaz zelakoa da harremana?

—Ez ona, ez txarra, nik ia ez daukat. Aurten Arenaseguz zelaia dela eta zeozer eskatu behar izan diedanean harremana oso ona izan da, Erromogaz ere bikaina, eta Sopelanako Ugeragaz itzela, lagun asko dauzkat han. m

Getxoarte zabal-zabalik

55 artista gazte etorkizuneko lekukotza bila



Arte Sortu Berrien Aretoa-ren IV. aldia antolatu du ekainaren 4tik 6ra Getxoko Kultur Etxeak. Aurtengo Getxoarten parte hartzeko 141 eskaeretatik, EHUko Arte Ederretako irakasleek, zenbait komunikabide-tako arte kritikariek eta galerista batek osatutako epaimahaiak 55 artistaren lanak aukeratu ditu. Horietatik guztietatik 20 bizkaitarrak dira eta 13 Uribe Kostakoak: 9 getxoetar, Leioako 2, eta sopoloztar eta berangoztar baina. Artista gazteak edota arte sortu berria dira

protagonistak Getxoarten, eta euren burua eta sormena ezagutarazteko erakusleho itzela da Arte Sortu Berrien Aretoa.

Areetako Geltoki plazan ipini duten 2.500m koadroko karpan margolanak, argazkiak, grabatuak, bideoa, eskulturak, marrazkiak, performanceak eta beste egongo dira ikusgai ekaineko lehen asteburuan. Kultur Etxeak 60.000 euroko aurrekontua dauka Getxoarte antolatzeko, eta sartzek 2 euro balio du. m

XXII. ESKOLA ANTZERKI TOPAKETAK EGINGO DIRA EKAINAREN 5 ETA 6AN

Getxoko Ume-Antzerkia Bultzatzeko Elkarteak (GUABE) ekainaren 5 eta 6rako antolatu ditu XXII. Eskola Antzerki Topaketak. Antzerki lanak, euskaraz zein erderaz, Getxoko Lehenengo eta Bigarren hezkuntzako eskola eta ikastola publikoetako ikasleek antzeztuko dituzte, guztira 19 antzerki talde, eta 300 ikaslelik gora. Ekaineko lehen zapatuan arratsaldeko 17:00etan jarri dute hitzordua Getxo Antzokian, eta domekan goiz eta arratsaldean eskainiko dituzte ikusizunak, 11:30ean eta 17:00etan. Ume eta gazte aktore hauek ikusteko sarrera doan da.

VI. EMAKUME BIDEAK ZIKLOAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DAGO

VI. Emakume Bideak zikloan parte hartzeko izen-emate epea zabaldu du Getxoko Antzerki Eskolak. Ekimen hau antzerki amateurrari zuzenduta dago, emakumeen elkarteetako antzerki taldeei, hain zuzen. Izena emateko epea ekainaren 11ra arte egongo da zabalik. VI. Emakume Bideak zikloa urrian hasiko da, eta ekainera arte iraungo du. Zazpi edo hamar bitarte antzerki talderentzako lekua dago, eta urtez urte, Bizkaiko 10 bat udalerritako taldeak aurkeztu ohi dira, eta arabako baten bat ere bai. Parte hartzeko eskakizunak Getxoko Antzerki Eskolan lortu daitezke. Iaz Getxoko Antzerki Eskolako egitasmo honek Ercilla saria jaso zuen.

Harremanetarako: 94 430 31 94

RENAULT ocasión

IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON

“0 Km” dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. **RENAULT**en bermearrekin.

Getxo I Institutuaren ondoan

RENAULT
BILBO BERRI
Bizkerre/k, z/g - ALGORTA
Tel.: 94 430 68 81
Jon Arróspide, 20 - DEUSTO
Tel.: 94 448 39 00

Sahara: elikagaien karabana abian

Udal erakundeek laguntzaz Leioako eta Getxoko Sahararen aldeko elkarteek eskualdean bildutako **elikagaiak** eta **kamioi bat** bidali dute

“**Horretarako** propio erositako kamioia –kamioia ere han geratuko da– Alacantera eramango da penintsulako beste elikagai-kamioekin elkartzeko. Gero isasontziz Mediterraneo zeharkatu Uahnan (Aljeria) hiriraino, eta han Frente Polisarioak hartuko du gidaritza eta baita elikagaien banaketaren ardura ere”, azaldu digu Leioako FATH Sahararen Aldeko Elkarte kidea den Luisek. Elkarre honetako lagunak, ATFAL Getxoko Sahararen Aldeko Elkartearekin batera egindako kanpainaren bidez Uribe Kostako eskoletan eta merkataritza-guneetan bildutako elikagaiak antolatzen eta kuxtetan sartzen aurkitu ditugu.

Lan handia edukiagatik ere, elkarte kideak pozik ageri dira ekimenaren emaitzarekin. Izan ere, elikagai mordo biltzea ez ezik, gizartearen kontzientziatze lanak eragin handia baitauka. Elkarte Santosek dioenez, “kontua ez da atun latak kuxtetan sartzea bakarrik, baizik eta Saharako herriaren egoera ere gogoeta egitea”.

Santos, Nekane, Luis, Naiara, Luis Mari eta Jesus Mari dira elkarte osatzen dutenak, baina, aipatzen dutenez, antolaketaz haiek arduratu arren “beste hainbat lagun dago elkartearen atzean”. Gainera, deia zabaltzen dute herritarrek elkartearen parte har dezaten, izan ere, “zortea izan eta ederto bizitzea tokatu zaigunez gero, horrenbeste zortea izan ez



Argazkian, FATH Leioako Sahararen aldeko kide batzuk, bildutako elikagaiekin

duten herriak laguntzeko beharra dugu”.

Historia apur bat

Espainiaren atzapar kolonizazioaren aroa bukatzean, Nadrirek Nazio Batuen Erakundearen deskolonizazio eskaerari izkin egin eta 1975an Marokorekin eta Mauritaniarekin akordioa sinatu zuen. Ondorioz, Mendebaldeko Sahara bi estatu hauen menpe geratu zen. Mauritaniak azkenean autodeterminazio eskubidea onartu zuen, baina Ma-

rokok ez du inoiz horretarako borondaterik erakutsi. Are gehiago, errepresioa erabiltzeaz gain Rabateko agintariak Mendebaldeko Sahara milaka marokoar eraman zituen, eta ondorioz, sahararrek ihes egin behar izan zuten, eta Aljeriako basamortu latzean errefuxiatu guneak eratu. Orain dela ia 30 urte euren herriaren jabetza emango dien erreferendumaren zain bizi dira herbestean ia 200.000 saharai, oso egoera eskasean gainera. m

Leioako Leioa

Kazeta berria argitaratzen hasi da herrian



Argazkian, Leioa kazeta argitaratzen duen lantaldea

Herriaren ikuspegi berria plazaratu nahi duen kazeta jaio da herrian: *Leioa*. Hilabetero jasoko dugu dohainik etxeko postontzian, eta herritarren interesa pizten duten albisteek beteko dute argitalpena. Aipatzekoa da lau gazte atera dutela aurrera Leioa eta ekimen independentea dela. Joseba Agirre, Enara Elejaga, Gorge A. Grandia eta Javi San Martinek osatzen duten taldearen ustez funtsezkoa da askatasuna: “argitalpen askea izan nahi dugu, ez udaltxearen bozgonailua. Gauzak diren moduan kontatuko ditugu”. Horregatik, finantza bidea herriko publizitatean oinarrituko da.

Leioa erdarazkoa izango da, baina euskarak ere bere lekutxo edukiko du. Enarak

azaltzen digunez, “kazetaren %30 euskaraz izatea nahi dugu”.

Lau gazte hauek kazetaritza ikasketak bukatu ondoren lan merkatuak eskaintzen dituen aukera urriak ikusita eurek bilaturiko bidea jorratzea erabaki zuten. Eginak dauzkate lehenengo urratsak. Josebak irribarrez dioenez, “hasiera gogorra da. Banketxeek ez ziguten krediturik ematen eta gutako baten guraoen izenean hartu genuen mailegua”. Gainera, baliabide urriak edukita, “komertzial lana, administratzaioa eta etxez etxeko banaketa ere gure esku dago”. Zailtasunak zailtasun, aurrera egiten dute ilusioz beteta, eta kalenda lehenengo zenbakia. m

ETXEKO? ELEKTROTRESNEN? KONPON -
Lacofris, s.l. SERVITEC
 Y MARKA GUZTIAK
 Y 24 ORDUTAN ERANTZUNA
 Y 3 HILABETEKO GARANTIA
 Y 25 URTEZ ZURE ZERBI
 & 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

KURKUDI LIBURUENDAKO
Euskarazko irakurgai
 Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
 T: 944 913 402

amesti 7sl
 [eraikuntzak]
 [etxeetako berrikuntzak]
 [gremioen koordinaketa]
 Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
 48990 ALGORTA

ERROTULOAK
ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK
 egiten ditugu
 e-mail: hurstab@euskalnet.net
 Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
 taberna
 eguneko menua eta afariak
 Lehendakari Agirre,2
 T: 94 463 00 45 - LEIOA

BETIKO IKASTOLA
 – 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
 – Ingelera 4 urtetik aurrera.
 – Frantsesa DBHn.
 – Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
 – Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
 – Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...
 Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

MARTIARTUKO SAN ANTONIO JAIK 2004

Ekainaren 5, 12 eta 13an

Ekainak 5

23:00 Kontzertua: **BASAKI**
24:00 Kontzertua: **SU TA GAR**
Jarraian diskoteka

Ekainak 12

11:30 Goitibeherak
17:00 Lurgaineko Euskadiko
Soka-tira Txapelketa 560 / 600 Kg.

- | | |
|---------------|---------------|
| 560 Kg | 600 Kg |
| • Getxo | • Getxo |
| • Areso | • Areso |
| • Goierri | • Goierri "A" |
| • Gaztedi "A" | • Goierri "B" |
| • Gaztedi "B" | • Gaztedi "A" |
| | • Gaztedi "B" |
| | • Nuarbe |

19:00 Meza
23:00 Gaupasa. **URGABE** taldea
Jarraian diskoteka

Ekainak 13 San Antonio egua

12:00 Meza.
Ohorezko aurrekua
12:30 **Luntxa** auzoko nagusientzat
18:00 **Idi-probak** (pisu libre) **Idi-probak**
21:00 Txupinazoa eta
jaien amaiera



Araitz Gojenola > hezitzailea

“Mutil berebereak ez dira biolentoak”



Argazkian, Araitz Gojenola

Gazte atzerritarrei arreta eskaintzen dien Loiuko zentroan ibili da Araitz hezitzaile lanetan. Nerabe etorkinak gure artera ailegatzaren direnetik paperak lortu eta euren kontura bizitzera joan arte laguntza emateko programak garatzen dituzte zentroan. Bezerorik gehienak 16-18 urte bitarteko mutil magrebiarrak dira.

—Zelan konpondu da 24 urteko neska 16-18 urteko mutil musulmanen artean? —Oso ondo, inolako arazo barik. Harrera programako lehenengo neska hezitzaileak izan ginen eta, hasieran, gizonetako hezitzaileek zuzendaritzara jo zuten, kezaz, ez ginelakoan gure lana egiteko gai izango. Baina ez da horrela izan eta, gainera, abantaila ere bada kasu batzuetan neska izatea. Borrokaren baten kontentzio lana egiten sartu naizenean, euren artekoek lagundu didate iskanbila konpontzen. Agian neska naizelako izan dut laguntza handiagoa.

—Iskanbilak eta abar izaten dira komunikabideetan agertzen diren berriak —Bai hala da, baina gehienek ez dute arazorik sortzen. Badira tartean Tangerretik eta datozen kaleko umeak, han egiten zuten bezala hemen ere, eskape modura, disolbentea arnasten dutenak. Bere onetik aterata jartzen dira eta orduan sortzen dira iskanbilak.

—Zer moduz integratzen dira hemen? —Gazte berebereak jatorrak dira eta badute Loiuko jendearekin harremana. Baina Loiun entzerratuta legez daude, ez daukate

«Tangerrekoak kamioi azpitan-eta ailegatzaren dira penintsulara. Berebereak pateretan, bidaia ordainduta»

ez ikastarorik ez ezer egun osoan, eta horixe da harrera programan dauden arazo nagusia, denbora gehiegi ematen dutela ezer egin barik. Autobusak ere euro bat balio du eta asteen 5 euro ematen dietenez, horrekin ezin dira askorik mugitu. m

San Bernabeak Fanon

Ekainaren 11, 12 eta 13an ospatuko dira jaiok



Argazkian, jai batzordeko kide batzuk

San Bernabe jaien antolaketan buru-belarri murgildurik dabilta auzo elkateko lagunak. “Fagoetarrak” kultur eta auzo elkarte moduan sortu zen auzoko arazoak udalari helarazteko eta bertokoen arteko harremana sendotzeko asmoz.

Jaietan asko dira ekitaldiak, dantzak, erromeria, haur jolasak... baina guztien artean San Bernabe egunean ospatzen duten herri bazkaria nabarmentzen dute fagoetarrok. Aurten ere indabak edukiko dituzte plateran eta lagun arteko giro aparta auzo osoan. Egun horretan bertan eta beste lekuetan bizi diren auzotarrak biltzen dira, eta beraz, elkartzeko parada dute urtean zehar elkar ikusten ez duten

lagunek. Bazkal osteko “briska” lehiaketak lekua hartu du jai egitarauan, leku garrantzitsua izan ere. Orain urte batzuk emakumeek baino ez zuten parte hartzen jokoan, baina orain gero eta auzotar gehiagok hartzen du parte.

Zapatua haurren eguna izango da eta txikienean puzgarrietan disfrutatzen aukera izango dute.

“*San Bernabe jaiak garrantzi handikoa dira auzoarentzat*” esan digu Jon Ander Zabala jai batzordeko kideak. “*Auzoko baselizan egiten zen igandeko meza desagertu zenetik auzotarrak ez dira sarritan elkartzen eta jai egun hauek aitzakia polita dira harremanak sendotzeko*”. m

ERANDIOKO BIZTANLEEN KUALIFIKAZIOA INGURUKO HERRIETAKO BAINO TXIKIAGO DA

Horrela dio Erandioko Hausnarketa Estrategikoak, 1999ko datuak kontuan hartuta. Erandion maila ertain eta goreneko hezkuntza jaso dutenen kopurua ez da %9ra ailegatzeko, eta Bizkaian eta Autonomia Erkidegoan biztanleen %15ek lortu du maila hori, hau da, %6 gehiagok. Alde esanguratsua. Udalerriaren barruan dauden heziketa arloko ezberdintasunak auzoka aztertuz gero, berez ez da ikasketatitulazioen inguruko ezberdintasun esanguratsurik ikusten.

ALTZAGAKO NEKAZARITZA AZOKA EKAINAREN 6AN

Metro geltokiaren inguruan 58 saltoki jarriko dituzte barazkiak, ogia, gaztaia, taloa, eztaia, sagardoa eta beste hainbat produktu saltzeko. Artisauentzat 10 saltoki gorde dituzte eta ganaduen erakusketan idiak, zaldiak, txerriak, ahuntzak, ardiak, hegaztiak eta abar izango dira. Goizean zehar txahala erreko dute burduntzian nahi duenak mokadua egiteko, eta 13:00etan herri kirolen erakustaldia egingo dute. Aurten, nobedade modura, gazta eta txakolin lehiaketak egongo dira.

KANTU AFARIA BERRIKETA TALDEAREKIN

Berbots Erandion Euskaraz taldeak kantu afaria antolatu du datorren ekainaren 12rako, Ategorri garagardotegian, gaueko hamarretan. Afalondoan, entzunez eta kantatuz gozatzeko aukera izango da Berriketa taldea osatzen duten Jaione eta Oskarrek lagunduta. Afarirako txartelak La Plaza tabernan eskura daitezke 15 euroren truke.

GOIZEAN

Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Lixcarriak

Orduña Mendatea 1 T: 430 22 13
GETXO T: 460 02 88
ALGORTA



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128




Taberna Berni
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

krimea



Negubide 13
Tel. 94 463 61 82
AREETA



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

[sopelana]

Emakumeen Bira

Txirrindulari onenak izango dira Sopelanan



Joane Somarribak ere parte hartuko du Emakumeen biran

Emakumeen XVII. Bira-ren azken etapa hartuko du Sopelanak ekainaren 13an. Ekainaren 10an hasi eta lau eguneguz emakume txirrindulari onenak bilduko ditu Iurretako Txirrindulari elkarteak antolatzen duen Birak. Hamasei txirrindulari taldek hartuko dute parte, baihoitza 6 txirrindulariz osatua.

Esan barik doa txapeldun sopoloztarra ere bertan izango dela, eta Joane Somarribagaz batera, Eneritz Iturriaga, Naiara Telletxea, Mirjam Melchers, Fabiana Luperini, Van Moovsel, Nicole Brandli

eta beste hainbat izen ezagun ibiliko direla nor baino nor Sopelanan garaile izaten.

Ekainaren 10ean Iurreta-Arrasate (79,5km) ibilbidea izango du etapak. Hurrengo eguneko saioak Lekeition edukiko du irteera eta helmuga (103,4km). Hirugarren etapak bi saio edukiko ditu: Elgeta-Elorrio goizean (63,6km), eta arratsaldean banakako erlojupekoa, Eloorrietik Elgetara (5,8km). Azkenengo etapa Sopelanan hasi eta amaituko da, eta Urduliz, Plentzia, Barrika eta Lemoiztik pasako da. m

SURF TXAPELKETA EKAINAREN 4, 5 ETA 6AN

Euskal Herriko Surf Federazioak eta Billabong-ek antolatzen dute Sopelanan egingo den surf txapelketa. Ekainaren lehen asteburuan, barikuan hasi eta domekara arte Arrietara hondartzan batuko dira olatuetako zaldun ezagun eta zale asko. ASP 1 Junior surf txapelketa da, edo bestela esanda, Billabong pro Junior lehiaketa. Bestalde, hil amaieran ere hondartza berak beste surf txapelketa bat hartuko du.

XIX. SOPELANAKO IBILALDI NEURTUA

Sopelanako Ibilaldi Neurtuak XIX. aldia beteko du aurten. Urko Mendi Taldeak antolatzen duen Ibilaldia ekainaren 6an egingo da, domekan. Udaletxeko plaza izango du irteera leku eta helmuga, eta bertan egingo da antolatzaileek prestatutako jaia ere. Aurreko egunean, hau da, ekainaren 5ean, zapatua, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara txokolata prestatuko dute ume eta gazteentzat udaletxeko plazan.

[sopelana]

Mendez Nuñez eta Lorenzo Artetxe > Xake taldeko kideak
"Jaurlaritzak 'tablak' onar ditzala"



Argazkian, hurbilen Lorenzo Artetxe eta atzean Nuñez Mendez

Hautsak harrotu ditu Eusko Jaurlaritzak xakearen inguruan adierazitakoak. Xakea kirola ez dela ebatzi du. Sopelanako Xake klubeko Mendez Nuñez eta Lorenzo Artetxe kideak egon gara, klubaren gaur egungo egoeraz eta abian den eztabaidaz berbetan. Jaurlaritzari kiroltasun erakustaldia egin dezala eskatzen diote, partida bere esku edukita ere, kirola den ala ez hurrengo batean erabaki dezala, baina federazioa desegin ez dezala eskatuz, "partida honetan tablak eman ditzala".

Orain dela 10 urte sortu zen Sopelanako Xake taldea, 70 bazkide izatera iritsi zen eta xake-eskola ere sortu zuten. Eskola gorriak delakoetan zeukaten lehen egoitza. Gero eskolak eraitsi eta udalak ematen zizkien lokalak gero eta txikiagoak ziren. Kluba gainbehera zetorren. Txikitasun horren kexa hedabideetara heldu zen, eta udalak ez ei zuen kexa hori ondo hartu. 7 bat kide dauzka orain, ez

du diru-laguntzarik eta xake-eskola desagertu egin da. Partidak Urdulizko Kata tabernan egin behar dituzte, eta bertaratzeko deia egiten diete xake-zaleei, ekainaren 13an batzeko. Ibilaldian ere egongo dira. Xake-zaleak berriro batuz taldea eta eskola berpiztu gura dute.

Federazioak mantendu

Nuñezen iritziz: "Jaurlaritzak federazio batzuk desagerrarazi gura ditu. Arrazoia dirua bada aurrekontuak murriztu ditzate-la, baina egoitzak utzi, jendeak nora jo jakin dezan, egiten duten lana ez da desegin behar: ligak eta txapelketak antolatu, klubak elkarregaz harremanean jarri..." Federazioak desagertuz gero, txapelketak ere joango dira, gero klubak, bazkideak, eskolak... "Dena eginda dagoenean desegin, gero berriro enaiki behar izateko", hala deritzote Nuñez eta Artetxek. m

Harremanetarako: 94 677 26 83



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

LAIKAK Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

4 bide pinturak



RIPOLIN

BONDEX

DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

Instalazio elektrikoak Electro LAIA

Larrialdi Zerbitzua 24 ordu
670 415 732

Konpromisorik gabeko aurrekontuak / komunitate, lantegien...
mantenimendua / ebebizitza, lonja, pabilioen erreformak /
bonba hidraulikoak / telefonia, ahots eta datuen sareak

GAZTE EUSKALTEGIA UZTAILEAN EGINGO DA KULTUR ETXEAN

Berangoko ume eta gazte euskaldunen artean euskara sustatzeko asmoagaz, Gazte Euskaltegia antolatuta dute uztaileko Berangoko udalak eta Kultur Etxeak, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak. Gazte Euskaltegia uztailearen 1etik 23ra egingo da, astelehenetik barikura 11:00-13:00 ordutegian, eta 6-12 urte bitartekoei begira prestatu dute. Izena emateko azken eguna maiatzaren 31 da, eta parte hartzeko 25 euro ordaindu behar dira. Ingurumena, kontsumoa, tolerantzia eta errespetua eta aisialdirako hezkuntza moduko gaiak landuko dira, irteerak egingo dira eta astean behin ekintzak ingelesez izango dira.

IBAIK GARBITZEKO LANTALDEA BEHARREN

Berangoko ibai nagusi bien bazterrek garbitzen hasi da udalak osatutako lantaldea. Mantzabe eta Gobela ibaien inguruak garbitzen dabilta 6 langile, eta bereizketa positiboko irizpideak jarraitu guran, erdiak emakumeak izan zitezten nahi zuen udalak. Hala ere, emakume bi baino ez ziren aurkeztu lanotan jarduteko, eta udalak biak zuzenean kontratatu ditu. Ibai-bazterren garbiketara lanak maiatzaren hasi eta ekainean amaituko dira.

Gobela ibaia Berangon



Musika Eskolak 15 urte berangoztar musikarien lehen notak



Argazkian Mari Calatraveño eta bere ikasle batzuk

Berangoko Musika Eskolak 1989-90 ikasturtean ekin zion bere partitura idazteari. Ordutik eta gaur arte Juana Mari Calatraveñok trebatu ditu berangoztar gazte asko musika munduan, bera da-eta Musika Eskolako zuzendari, irakasle eta buru. Musikan lehen pausuak emateko helburua dauka Eskolak, eta Musika Hizkuntza, pianoa, txirula eta korua eskaintzen ditu. *"Ikasteko gogoia eta musikan jarraitzeko aukera daukaten ikasleak Leioako kontserbatoriora bidaltzen ahalegintzen naiz, gu eskola txikitxo gara-eta"*. Umetxoak dira ikasle gehienak, eta gazte edo nagusiren bat ere badago, guz-

tira 22 bat. Hala ere, Calatraveñok adierazi digunez helduentzako eskolak emateko atea zabal-zabalik daude.

Lankide bategaz aukera gehiago

Calatraveño Barakaldon jaio zen, baina 17 urte darama Berangon. Musika Eskola txikitxo bada ere, pozik dago. Alabaina, askotan lankide baten beharra ei dauka, *"niri bururatzen ez zaizkidan gauzak berrari bururatu ahal zaizkiolako, eta gainera musika tresna bat irakasten badu eskaintza handituko genukeelako"*. 15. urteurrenaren ez du jairik prestatu oraindik... baina inspirazioak lanean harrapatuko ei du. ^m

cianoplan s.a.
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

Patxo Igartua > Gorlizko alkatea

“Babes Ofizialeko 42 etxebizitza eraikitze prozesuan daude, baina ez nago konforme”


Bederatzi urte daramatza Patxo Igartuak Gorlizko alkatetzan. 57 urte daukaz eta ikasle garaian Maisutza ikasketak egin zituen. Gorlizen jaio eta bizi izan da beti, eta bere esanetan, udalak harroen erakusten dauen lorpena Kultur Etxea da.

—Zer egin gurako zenuke udalerrian, edor-zegaitik egin ezin duzuna.

—Beti badaude edozein arrazoi dela eta ezin egin daitezkeen gauzak. Adibidez, Babes Ofizialeko Etxeak. Momentu honetan, eraikitze prozesuan daude 42 etxebizitza. Hala ere, ez nago oso konforme, 42 beharrean 80 eta piku egin gura nituelako. Baina ez genuen gehiago egiteko lur zatirik, eta lortu ahal izan genuen lur eremuan 42 egiteko lekua zegoen. Laster eraikitzen hasiko gara, eta gehiago egiten jarritu gura nuke. Gero, egunen batean, metroa Gorlizera hiltzea ere gura nuke, eskaera egin nuen baina ezezkoa eman zidaten. Baina hori lortzeko beharrean jarraituko dugu, kontuan hartuta Bizkaian azken 10 urteotan gehien hazi den udalerria Gorliz dela —%54 hazi da—, Bizkaiko hondartzetatik, jende gehien erakartzen duenatarikoa Gorlizko hondartza dela, eta uda garaian herritarren kopurua laukoiztu egiten dela... hori guztia kontuan hartuta uste dugu metroa etorkizunean honaino heldu beharko litzatekeela.

—Egin al duzu zeozer egin gura ez zenuena?

—Beti daude horrelako gauzak, ez dakit, arrazoi politikoengatik edo bestelakoengatik egin behar dituzunak, baina egin gura ez zenituenak. Baina erabakiak batzordeetan hartzen dira, eta hor zenbat buru hainbat aburu. Eta gehiengoak iritzi bertsua dauka-



Argazkian, Patxo Igartua

nean, zu oso konforme ez bazaude ere, onartu behar da. Adibidez, baten, nire iritzi argi zegoen gauza batzuk modu batera egin behar zirela eta ez bestera: gehiengoak nirea ez den erara egitea erabaki du eta nik hori onartu behar dut.

«Egunen batean metroa Gorlizera hiltzea gura nuke, eta hori lortzeko, beharrean jarraituko dugu»

—Zelan bizi da euskara Gorlizen?

—Ez gura bezain ondo, baina ez da hain txar-to bizi. Gazteek gehienek dakite euskara, hemen jaiotako batzuek berba egiten dute, beste batzuek erdizka egiten dugu, eta besteek ez dute egiten. Oro har, hobera goaz. Udaletik euskara bultzatzen dugu, eta une honetan Jaurlaritzagaz eta Aldundiagaz hitzarmen bat sinatzekotan gaude, euskara sustatzeko. —Zein da zure Gorliz perfektuaren irudia?

—Jakina, Gorliz perfektuari gauza asko falta zaio. Perfektu-perfektua izatea oso gaitza da. Baina perfektiorako bidean jarraitu gura dugu, egiten gabiltzan Plan Estrategikoaren bitartez, arau ordezkatzailakaz, eta etorkizunean ere sortuko diren egitasmoakaz. Izartu planeko diru-laguntza batzuk hartu ditugu... eta garraio publikoa hobetu dugu: lehen, metrorako autobusa orduro zen, orain irteten den metro bakoitza hartzeko autobusa dago, ikastetxeko gelak ere konpontzen gabiltza eta eraikin berria egiten, gero eta ume gehiago dagoelako...

—Erakustareto berria egin duzue; Kultur Etxea-eta zelan dabilta?

—Oso harro gaude, harro egoteko moduko eskaintza dauka. Erakunde automoto moduan dihardu Kultur Etxeak, Udaletxetik aparte, eta 2004rako 437.000 eurotik gorako aurrekontua dauka. Kultur Etxea txiki geratu da eta horregatik egin genuen erakustareto berria, eta beste eraikin handiago baten bila gabiltza. Turismo Bulegoa ere egunero dago zabalik, eta iaz 3.850 kontsulta jaso zituen. Oso pozik gaude, bai.

—Galdera okerra da, baina interesa ei dauka, zenbateko soldata daukazu?

—2.000 eta piku euro, eskualdeko alkateen soldatak baino gutxiago, baina konforme nago. Bizitza osoa lanean eman dut, goizeko 8ak baino lehen hemen egoten naiz, astegun batzuetan arratsaldeetan ere bai, eta inoiz erlojuak gaueko hamarrak ere jo ditu gu hemen geundela. ^m

GORLIZ

- Biztanleak: 4.890
- Herriaren azalera: 10,6 km koadro
- Udala: 11 zinegotzi. EAJ-EA 7, Independienteak 3, PP 1,
- Euskaldunak eta ia euskaldunak (2001): 2.823 (%58)
- Erdaldunak: 1.546 (%42)

HAURRENTZAKO IRTEERAK UZTAILEAN ZEHAR PLENTZIAN

Plentziako Goñi Portal Kulturalak hainbat ekitaldi antolatu ditu 8 eta 13 urte bitarteko gazteentzat uztaileara begira. Donostiako Aquarium-era, Karrantzako kobazuloetara eta Karpin parkera, eta Gorbealara egingo dira irteerak. Parte hartu gura dutenek ekainak 21 baino lehen eman beharko dute izena.

Informazio gehiago: 94 677 55 41

URDULIZKO JAIETARAKO KARTEL LEHIAKETA

Urdulizko Kultur Etxeak Andra Mari jaiak iragarriko dituen kartel lehiaketa prestatu du. Gaia askea da eta kartelek 45x60 cm-ko neurria eduki behar du, eta euskarri gogorrean itsatsita egon beharko du. Lehiaketarako kartelak aurkezteko epea ekainaren 12an amaituko da, eguerdiko 13:30ean. Irabazleak 400 euro jasoko ditu.

Informazio gehiago: 94 676 36 31

PINTURA LEHIAKETA BARRIKAN EKAINAREN 13an

Barrikako udalak XVI. Kanpoko Margo lehiaketa antolatu du ekainaren 13an. Gaia Barrikako udalerrira izango da, eta margolariak 09:00-17:30 bitartean egin beharko dute lana. Lehiaketa adin guztientzat dago zabalik.

Informazio gehiago: 94 677 13 94

GORLIZ Argazki eta ipuin lehiaketan sari banaketa



Argazkian, lehiaketan saritutako lan batzuk

Gorlizko XII. Argazki eta Diapositiba lehiaketako sari guztien artean 1.300 euro banatu dira. Sarituak hauek dira: Javier Pedro Fernandez, "Yera" lanagatik, eta Jorge Salvador Hidalgo, "Visual" argazkiagatik: 350-na euro jaso dituzte. Eta 300 euro jaso ditu Asier Castro de la Fuentek "Lasaitasunaren pasabidea" obragatik. Diapositiben alorrean, Carlos Terreros "Skateboard" lanagatik eta

Vicente Contreras "Helice" diapositibagatik dira saridunak, baikotzak 150 euro. Bestetik, Uribe Kostako Mankomunitateak antolatutako VI. Ipuin lehiaketaren saridunak ere jakin berri dira: Lexuri Arnaiz, Andutz Zulaika, Naiara Iriarte, Alba Garcia, Xabier Gomez, Itsaso Diaz, Ainhize Lopez, Oihane Landarroitajuregi eta Jagoba Justos. m

Mai. 30 - ekai. 13

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Antzezaleak-eko ikasleen lanak.** Algortako Kultur Etxeko areto nagusian. Ekainaren 14tik 25era.

► **Lantegien erakusketa.** Kultur Etxeak antolatutako lantegietan egindako sorkuntza-lanen erakusketa. Algorta, Erromo eta Areetako aretoetan. Maiatzaren 31tik ekainaren 11ra.

► **ECCA Erromo erakusketa.** Erromoko erakustaretoa. Ekainaren 14tik 18ra arte.

ERANDIO

► **Gaztela Leongo zentroko lanak.** Josu Murueta Kultur Etxea. Maiatzaren 24tik ekainaren 6ra.

URDULIZ

► **Margo erakusketa.** Umeen margo erakusketa. Kultur Etxea. Ekainaren 8tik 13ra.

► **Jaietako Kartelak.** Andra Mari jaietarako kartel lehiaketako lanak. Kultur Etxea. Ekainaren 15etik 30era.

PLENTZIA

► **Victor Cuadro.** Margolanak. Goñi Portal kulturala. Ekainaren 1etik 15era.

BERANGO

► **Lantegietako sormenak.** Kultur Etxeko lantegietako ikasleen sormenak. Berangoetako Kultur Etxea. Margolanak, maiatzaren 31tik ekainaren 6ra arte. Otargintza, Ekainaren 7tik 13ra arte.

GORLIZ

► **Eskulan eta Pintura.** Eskulan eta pintura ikastaroetako sormen lanak. Erakustaretoa. Ekainaren 10era arte.

ANTZERKIA

GETXO

► **XXII. Eskola Antzerki Jardunaldiak.** GUABE elkartearen eskutik, udalerriko eskola, DBHko zentru eta ikastola publikoetako ikasleen antzezlanak. Getxo Antzokia. Ekainak 5 eta 6. Zapatuan 17:00etan, eta domekan goizean 11:30ean eta arratsaldean 17:00etan. Sarrera doan.

ERANDIO

► **Bla, Bla Bla.** Getxoko Antzerki Eskolaren V. Emakume Bideak



Haurrak Ibilaldia 2004ko kanta grabatzen

► IBILALDIA

Bizkaiko ikastolen jai Leioan, maiatzak 30

Surf taula baten gainean datorren lamiak dakar aurten *alkarregaz heldu* gomendioa, Ibilaldia 2004ko mezua, hain zuzen. Leioako Betiko ikastola eta Sopelanako Ander Deuna ikastolak daukate aurten Bizkaiko ikastolen jai antolatze ardurua, eta eguna heldu da: Ibilbidea Leioan zehar egingo da, eta euskarari, ikastolei, Ibilaldia, eta jaiari berari alkarregaz heldu beharko diogu, aurrerantzen ere zere heldu edukitzen jarraitzeko, eta euskararen fruitua heldu dadin, berotasuna ere alkarregaz eman beharko diogu.

• Non: Leioan • Noiz: Maiatzaren 30ean, domeka

zikloaren barruan, Hamaika konpainiaren eskutik. Bekoa ikastetxean. Ekainak 5, zapatua. 19:30.

ZINEMA

PLENTZIA

► **Rugrats: vacaciones salvajes.** Haur zinema. Goñi Portala. Ekainak 5, zapatua. 18:00.

► **Ponte en mi lugar.** Gazte Zinema. Goñi Portala. Ekainak 12, zapatua. 18:00.

► **La Mancha humana.** Helduentzako zinema. Goñi Portala. Ekainak 4, barikua. 22:00.

► **Titus.** Helduentzako zinema. Goñi Portala. Ekainak 11, barikua. 22:00.

MUSIKA

GETXO

► **XVI. Nazioarteko Blues jaialdia.** Victor Aneiros eta Eric Sardinak, ekainaren 11an. Bobby Rush & His Big Band, ekainaren 12an. Deborah

Coleman, ekainaren 13an. Algortako Portu Zaharra. 21:30. Sarrerak doan.

ERANDIO

► **Bilbainada jaialdia.** Gaupasa, Txikis, Cinco Bilbainos eta Los Chimberos taldeak. Altzaga polikiroldegian. Ekainak 5, zapatua.

► **Su Ta Gar.** Martiartu-Goierri. Ekainak 5, zapatua. 24:00.

BESTEAK

GETXO

► **Getxoarte.** Arte Sortu Berrien Areato. Areetako Geltoki plaza. Ekainaren 4tik 6ra. Sarrera: 2 euro.

► **Gorpuzti jaiak.** Algortako Portu Zaharra. Ekainak 13, domeka.

► **Kontularien Kluba.** Denboraldiko azken ekitaldia. Algortako Kultur Etxeko areto nagusia. Ekainak 11, barikua. 19:00. Sarrera doan.

BARRIKA

► **San Juan IV. Tenis Txapelketa.** Umeei zuzenduta. Ekainaren 12tik 20ra.

► **Kaleko XVI. Margo lehiaketa.** Adin guztientzako. Ekainak 13, domeka. Izen ematea egunean bertan Goierriko eskoletan 10:30ak baino lehen.

URDULIZ

► **Umeentzako lantegiak.** Kultur Etxean. Ekainak 5, zapatua. Orduetgia: 11:00etatik 12:15era.

BERANGO

► **Txori Abeslarien XXIII. lehiaketa.** Elxalden. Ekainak 5, zapatua. Goizeko 09:00etan.

GORLIZ

► **Bizkaiko 2. mailako pelota Txapelketa.** Gorlizko frontoia. Ekainak 6, 10:30ean eta ekainak 13, 13:30ean. Goizeko 09:00tan.

SOPELA

► **ASP 1. Junior surf txapelketa.** EHSF eta Billabong-ek antolatuta. Arrietara hondatza. Ekainaren lehen asteburuan, hilak 4, 5 eta 6.

PLENTZIA

► **Ikastaroa.** Euskal Erakundeak. Goñi Portal Kulturala. Izen emateak ekainaren 1etik 7ra.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

20^o ANIVERSARIO URTEURRENA

KLIMATIZAZIOA
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

AENOR Empresa Registrada ER-1891/2001
AENOR Gestión Ambiental CGM-02/006

namaika bide

zenbat gara elkarte

1 Kafe Antzokia Bilbo
2 Kafe Antzokia Ondarroa
3 Ondarroako Arrigorri itsas ostalua
4 Algara konpartsa
5 Zaparrada Gaztegunea
6 Olgetan Umegunea
7 Elkartearen zerbitzu, ikastaro eta tailerrak
8 Bakaikuko etxea
9 Bilbo Hiria irratia 96.0 Fm
10 Zenbat Gara aldizkaria
11 Gara argitaletxea

San Vicente 2
4. solairua
48001
94 423 75 91




Haurren euskal jaia

Getxoko ia 2.000 haur euskal dantzak, kantak eta bertsolaritza ikasten ibili dira urte osoan. Herriko A, B eta D ereduko 10 ikastetxek –publikoak eta pribatuak– hartu dute parte Euskara Zerbitzuak bultzatutako ekimen honetan. Haurrek Itxas-Argia, Itxartu eta Agurra dantza taldeetako kideak eta Algortako Bertsolari Eskolakoak izan dituzte irakasle. Urte oso horretan ikasitakoa erakutsi zuten Getxoko Andra Mari kiroldegian maiatzaren 13an egindako euskal jaietan.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**






GETXOKO LEKU IZENAK

Liburua eta Mapa

salgai



ARGITARATZAILEA :



ARGITATZAILEA : GETXOKO UDALA

Euskara Zerbitzua



Eguneko eskaintza

Juan Luis Markaida

Hauxe duzue Juan Luis Markaidak helarazi digun irudia: ez du azalpen askoren beharrik orain dela hogeit hamar urte Getxoko kaleetan egindako argazki honek.

GETXO, 1994

Juan Ignacio Perez Iglesias, “Iñako”, Salamancan jaio zen 1960an, baina artean umea zen Bilbora ekarri zutenean bizitzera. Euskaldun berri hau 1985etik da EHUko irakaslea; Fisiologia katedraduna, hain zuzen. Orain errektore berria da, hautagai mordoa eduki duten hauteskundearen ostean. Perezek badaki unibertsitatearen erantzukizuneko karguak edukitea zer den, Pello Salabururen agintaldian Euskara errektoreordea izan zen eta. Badaki, era berean, hautagai izatea zer den. Errektoretzarako aurreko hauteskundeetan, Manuel Monterok oso gubxiatik irabazi zion. Azkenik, lortu du EAEko unibertsitate publikoaren buru izatea, eta hau da, hain zuzen ere, kargua berenagatu zuenetik idatzizko komunikabide bati emandako lehen elkarrizketa, bulego berrian hirugarren eguna baino ez zuela.

Juan Ignacio Perez Iglesias

Lemazain berria

Testua: **Unai Brea**

—Ezustekoa izan ei da zu aukeratzea errektore, eta batez ere, bigarren itzulira igaro zineten biak igarotzea...

—Niretzat ez, ni aukeratua izatea behintzat. Aurreikuspen horiek, seguraski, oinarri desegokiekin egin ziren. Bazegoen emaitzak nolabait asmatu zituen, beraz ez zen hain aurreikustezina. Kanpainan zehar nirekin hitz egin zuten hautagai guztiek esaten zidaten: pasatuko denetako bat zeu izango zara, eta bestea neu. Nik ez dakit besteekin ere hala egiten zuten. Nik behintzat ez nuen egin. Bigarren itzulira pasatuko nintzela uste nuen, hori bai. Beharbada horregatik irabazi dut. Nork bere buruari sinistarazi behar dio pasatuko dela, bestela zertarako aurkezten da? Gero, batzuek ezustetzat hartu dute emaitza, baina ez litzateke hartu behar.

—Bai zuk bai Iñaki Antigüedadek azpimarratu duzue kanpaina honetan inoiz baino gehiago egin dela berba gai akademikoez...

—Ez, ez... Hala izan da, bai, baina aurreko kanpainetan ere berdin gertatu da. Orain lau urte ni hautagaia izan nintzen, eta kontu akademikoez baino ez

genuen hitz egin. Hori hemen tradizioa da, ez da berria.

—Zein erronka daukazu epe laburrean?

—Premiazkoak dira finantzazio duina, nahikoa, bermatzea, eta datorren ikasturtea era egokian abiaraztea, horietan dira lehentasuneko kontuak.

—Asko aipatzen da EHU Europako unibertsitateekin parekatu behar dela. Zer mailatan dago EHU orain?

—Europar ehunka unibertsitate daude.

“Ez gaude ‘Txapeldunen Liga’ jokatzeko moduan, baina ez gara hain txarrak”

Badira, mutur batean, Grand Ecole izenekoak, Frantzia batez ere, eta Oxbridge deitutakoa, Oxford eta Cambridge, edo beste zenbait, ospe handikoak, maila handikoak. Horiek onak dira. Horiek baditugu Europako unibertsitatez, egia da gu ez gaudela maila horretan. Baina Tesalonican badago unibertsitate bat, normala, Italian ere badira, Palermon, Sienan, Erroman... gurea bezalakoak. Esango nuke txarragoak dire-

la horiek gurea baino, eta badira beste batzuk are apalagoak. Seguraski ez gaude ez goian, ez behean: erdian nonbait. Nik zer nahi nuke? Beti esaten dut, Txapeldunen Liga jokatzeko. Eta uste dut orain ez gaudela Txapeldunen Liga jokatzeko moduan, eta seguraski UEFA ere ez, baina ez gara txarrak.

—Ikerkuntzari oso lotutako Zientzia fakultatean ibilia zara. Ikerkuntza nahikoa egiten da? Bitarteko gehiago behar dira?



Maiatzaren 11tik dago Juan Ignacio Perez Iglesias errektorearen bulegoan

orain arte ikerkuntza egiteko baldintza egokiak eduki ez dituzten hainbat irakasle. Hor ere sustatze-lana egin daitekeela uste dut. Profesional onak baditugu. Baina denbora gehiegi eman behar izaten diogu administrazioari, lan burokratikoari. Hori beste zerbait egiten emango bage-nu, hobe. Eta askotan ez da bakarrik baliabide kontua, antolaketa kontua ere bada. Hainbat eskolatan, gainera, irakasle askok irakaskuntza-jarduera handia daukate. Beharbada horietako batzuk oso ikertzaile onak izan litezke apur bat gutxiago irakatsi behar balute.

—Euskarari dagokionez, zer gabezia dago EHU?

—Asko. Karrera asko egin daiteke euskaraz, uste dena baino gehiago, eta uste

duguna baino ikasle euskaldun gehiago dago. Ez da irakasten guztia euskaraz, hori seguraski zaila da, baina bagoaz aro batera non ez den guztia emango euskaraz baina seguraski ez den guztia emango

“Posible izan beharko lizateke euskaraz bizitzea unibertsitatean”

gazelaniaz. Hizkuntza-ereduak aldatu egingo dira, eta ingelesez ere irakatsiko dugu zerbait. Beste gauza bat da: bizi daiteke euskaraz unibertsitatean? Ez, ezin daiteke. Ez bada oso inguru itxian. Bizi beharko lizateke? Posible izan beharko lizateke, eta horretarako, alde batera uzten baditugu hizkuntza-paisaiari da-

gozkion kontuak, administrazio-langileen euskalduntzea dago. Hor hutsune nabarmenak daude, baina horiek konpontzea, zoritxarrez, ez dago gure esku, neurri handi batean behintzat. Bada unibertsitatearen oso garrantzitsua den beste arlo bat: testu-liburuak eta ikas-materialak. Eta hor gabeziak nabarmenak dira. Ahalegin bereziak egin beharko ditugu. Ikasketei dagokienez, gabeziarik handienak oso arlo teknikoetan daude. Ingeniaritzetan, Medikuntzan, e.a. Oso teknikoak dira, eta oso bokazionalak. Esan nahi dut pertsona batek Ingeniaritza ikasketak egiten dituzenean ingeniaria izan nahi duela, eta ingeniari batek ez du irakatsi nahi, zubiak eraiki nahi ditu. Medikuekin batekin gauza bera gertatzen da. Orduan, ez dago pizgaririk hona ekartzeko. Horri gaineratzen badiuzu euskaraz irakasteko euskaldunak behar direla... Ondorioa: oso zaila da. Eta hori, gainera, ez dago baliabideen menpe. Hori da txarrena. Baliabideen menpe egongo balitz...

—Eta zelan konpondu?

—Populazioaren erdia euskalduna denean konponduko da. Guztiz konpondu, e? Partzialki, ahaleginak eginez, lehenago. Guk lehenago konponduko dugu, dudarik gabe.

—Lau urtean?

—Guztiz, ez. Ezin da. Baina aurrekada egingo dugu. Lau urtean gauza gutxi egin daitezke. Pentsa ezazu euskaraz irakasten

1980an hasi ginela: 24 edo 25 urte dira beraz. Eta denbora horretan pasatu bagara %0tik %85era, kalkulatu lau urtean zenbat. Hori da erritmoa. Eta badirudi ez dela baliabide kontua soilik. Gainera, orain geratzen diren gaiak zailenak dira. Orain arte euskaratu direnak euskaraz emateko errazenenak izan dira. m

Gero eta gehiago dira ezkondu barik alkarregaz bizitzea erabakitzen duten bikoteak. Horrek, orain gitxi arte, desabantaila ugari ekarri dizkie ezkonduakoen aldean. Bikote batek bere harremana zelan gauzatu, hainbat eskubidez goza zezakeen, edo ez. Zer esanik ez, ezkonduak soilik erabil zitzaizketen eskubide guztiok. Uribe Kostako udaletxe batzuek zeuzkaten izatezko bikoteen erregistroak, beraz, ezer gitxirako balio zuten; estatistikarako eta pare bat txikikeria gehiagorako, besterik ez. Iazko maiatzean Eusko Jaurlaritzak indarrean ipinitako legeak egoera hori irauli du, ordea. Orain, izatezko bikoteen erroldan izena ematea ia ezkontzea bezalakoa da, baina askoz erosoagoa. Zergatik, orduan, jendeak bigarrenaren alde egiten jarraitzen du nabarmen?

Izatezko bikoteak

Merke ezkondu

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Bikotekideak banatzeko nahikoa da agiri bat izenpetzea

Lege polemikoa

2003ko maiatzaren 7ko EAEko Izatezko Bikoteen Legeak zeresan ugari sortu zuen, kontu bati dagokionez batik bat: legeak izatezko bikotea osatzeko eskubidea aitortzen die sexu bereko pertsonari, eta aldi berean umeak adoptatzeko eskubidea aitortzen izatezko bikoteei. Askok eta askok ez dute inola ere ondo hartu gay edo lesbiana bikote batek umeak adoptatu ahal izatea. Oraindik luze joko duen eztabaida puri-purian ipini zuen, beraz, Eusko Jaurlaritzaren lege berriak.



Orain hilabeteko UKn esan genizuenez, Lemoizko Udaletxeak izatezko bikoteen erregistro bat sortzea erabaki du. Oraindik hainbat pausu eman behar dira asmoa guztiz gauzatzeko, eta beraz itxaron egin beharko dute bertan izena eman gura duten lemoiztar bikoteek. Egitasmoa burututakoan, Uribe Kostan udal batek daukan hirugarren erregistroa izango da Lemoizkoa, Erandiokoagaz eta Sopelana-koagaz batera. Aldiz, eskualdeko udalerrri askok –gehienek, esan daiteke– bertan behera utzi dituzte euren erregistroak, Eusko Jaurlaritzak erregistro orokorra sortu ostean ezertarako balio ez zutelakoan. Gaur, udaletxe gehienek Eusko Jaurlaritzara igortzen dituzte izatezko bikote legez

zuenan, Erandiok bere erregistroari eutsi zion, eta horrek abantaila bat ematen die herrikoei: ez dute Bilbora joan behar burokrasia kontu horietarako, Udaletxean bertan bete ditzaketelako agiri guztiak; gero Udaletxea arduratzen da Eusko Jaurlaritzara bidaltzeaz. Beharbada horregatik da eskualdean erroldatutako izatezko bikote gehien daukan herria. Guztira, 96 bikote daude Erandion izena emanda. Bizkaia osoan 763 daudela kontuan hartuta, kopurua ez da batere txarra.

Sopelanan, daturik ez

Agiriak udaletxean bertan egiteko aukera ematen duen beste herria Sopelana da. Hala ere, ez du guztiak egiteko aukera

«Erandio da Uribe Kostan izatezko bikote arautu gehien daukan herria»

izena ematera hurbiltzen zaizkienak.

Erandio da, alde handiz, halako bikote gehien daukan herria. 1996an sortu zuen Ibaizabalen ertzeko hiriak bere erregistroa. Artean ez zegoen legediririk, eta beraz, gauza bakarrerako balio zuen bertan izena emateak: kiroldegiko karneta familia “arruntek” bezala eskuratu ahal izateko. 2003ko maiatzeko legeak izatezko bikoteen egoera ezkonduenagaz parekatu

ematen; zenbait agiri lortzeko Eusko Jaurlaritzara jo behar da ezinbestean. Izan ere, izatezko bikoteek ezkonduak dauzkaten eskubide berberak eskuratzeko bete beharreko agiriak dira horiek. Hala ere, Sopelanan udal erregistroa dauka oraindik ere, balio estatistiko hutsa daukan arren. Edo ezta hori ere, beharbada: erregistroan zenbat izatezko bikote dagoen galdetuta, ez digute erantzunik eman gura izan,

norbanakoen intimitatearen defentsa erabiliz aitzakiatzat. Eusko Jaurlaritzaren erregistroan, berriz, 11 bikote sopeloztar daude, jakin ahal izan dugunez.

Gainerako herrietakoek Eusko Jaurlaritzara jo behar dute, eta agiri mordoa bete. Besteak beste, izatezko bikotea

osatzeko bikoteek eman daezakete izena erregistroan, eta baldintza bakarra bietako bat EAEn erroldatuta egotea da.

Izatezko bikotea bertan behera gertatzeko hainbat modu daude. Bata, bikotekideak elkarrekin ezkontzea. Bietako bat hiltzea da bigarrena. Azkenik, biek

«Eskualdeko herri gehienek –hiruk izan ezik, denek– ez daukate erregistrorik»

osaten dutenek legez araututako bestelako bikote baten zati ez direla frogatu behar dute. Gainera, aukera daukate ezkonduak bezala ondare-erregimen bat hautatzeko; hortaz, legearen barruko izatezko bikotekideek errenta-aitorpena alkarregaz egitea daukate, gura izanez gero. Sexu bereko zein desberdineko pertsonen

hala adostuta edo batak gura duelako gerta daiteke banaketa. Ezkontzetan bezala beraz, baina alde eder batez: izatezko bikotekideak banatzeko, nahikoa da agiri bat izenpetzea. Dohainik. Zer ikusirik ez ezkonduakoen abokatu eta abarretan xahutu behar dituzten dirutzakaz. m

Izatezko bikoteak herriz herri

- Barrika0
- Berango7
- Erandio:96
- Getxo45
- Gortiz..... 1
- Leioa17
- Lemoiz0
- Plentzia2
- Sopelana.....11
- Urduliz.....3
- Guztira182
- Bizkaia guztira763

* Iturria: Eusko Jaurlaritza (2003ko datuak)

«Gehiago dira bikotearen egoera arautzeko ezkontza aukeratzen dutenak»

Ikus daitekeenez, oraindik ez dira asko euren egoera arautzen duten izatezko bikoteak. Daturik ezean ere, argi dago gehiago direla, berbarako, mota bateko ala besteko ezkontza aukeratzen dutenak, bikotea legeztatzeko modu biek abantaila berdintsuak izanda ezkontzak desabantaila gehiago daukan arren. Zergatik? Soziologo batengana jo genezakeen geure zalantzak argitze aldera, baina oraingoan guri geuri, inongo laguntza barik, bururatu zaigu azalpena: izatezko bikoteen legeak urte eskas bat baino ez dauka, eta biztanleok ez gara lar jakitun haren inguruan; ezkontzak, berriz, askoz lehenagokoak dira, zuetako batzuek jakingo duzuenez. Beste azalpen bat sinesmen kontuetan topa genezake, baina hori ez da erreportaje honen gaia.






GETXOKO ANDRA MARI ELIZA, MAIATZAK 15

San Isidro egune Getxon

Tenperaturek gora egiten hasi ta batera, herri bakotxako yaiek bere hasten dire ospatuten Uribe Kostako auzo eta herri gehienatan. Lehenengotarikok ixeten dire Getxoko San Isidrok. Santu hau baseritarran santu da, eta ixen bere, Getxoko Andra Marin dana zan baserri sasoi baten. Yai txikerra da gaur egun, ta bertan alkartuten diren duztik ondo ezetuten daude alkar, auzotarrak ixeten dire-ta. Halan ta bere, gaurko jaitxu honek zeozter deko, izakera bat, beste sasoi bateko usiñe edo ikutu dakarrena gure artera: meze, auresku, santuri lorak emote, edarireko barratxu... Hori harrapatuteko ahalegiñe egin dau gure argazkilarik.

Argazkiak: Asier Mentxaka





zineeskola

Oskar Fernández

maisua (II)
Stanley Kubrick

Jarrai dezagun artikulutxo honen bidez zinemagintzak eman duen zuzendari handienetarikoa batekin: Stanley Kubrick. Aurreko zenbakian berak eginiko filmak aipatu genituen, eta ildo horretatik jenio honen bizitza eta lana ezagutuko ditugu gaur. Kubrick perfektiozale handia zen, denbora luzea ematen zuen gero film bilakatuko zen lana prestatzen. Maitasun eta profesionaltasun handiz prestatzen zituen film guztiak. Kameraz, argitasunaz, eszenaren konposizioaz eta aktoeren antzezpenaz ere arduratzen zen: dena zeukan kontrolpean zinemagile handi honek. Margolari batek koadroan ipintzen duen kontzentrazioa, Kubrick-ek filmaren arlo eta alderdi guztietan ipintzen zuen, sakon eta zorrotz, eta lan egiteko ahalmen eskerga zuen, gainera. 1968ko "2001: A space odyssey" filmak aro berria zabaldu zuen, oinarri sendoa bihurtu zen bere atzetik etorri ziren film guztietarako. Gero, 1971. urtean "A clockwork orange" zuzendu zuen. Berriro bete-betean asmatu zuen eta beste maisu-lan bat lortu, baina Britainia Handian jasotako presio gogorragatik filma aretoetatik kentzea erabaki zuen. Eragin handia izan zuen film honek zinemagintzan. 1975. urtean beste lan bikain bat zuzendu zuen: "Barry Lyndon". 1980. urtean "The shining". 1987. urtean "Full metal jacket", Vietnami buruzko istorio bikain, interesgarri eta sakona pantailaratu zuen. Bere azken lana "Eyes wide shut" izan zen, 1999. urtean zuzendua. Eta dolu garaia izan zen urte berri zinemazaleontzat: Kubrick bikaina, handia, maisua, jenioa, hirurogeita hamar urte zituela joan zitzaigun. Baina ez guztiz, zorionez bere lanak zutik eta bizi-bizi dirau eta, gure artean. 4

The end datorren umira arte

Amaitu da Cinema Paradiso eta Zineklubeko denboraldia: **20.000 ikusletik gora aurten**

Azarotik maiatzera irauten du Getxoko Kultur Etxeak prestatzen duen zinema denboraldiak, eta maiatza azken hantsa ematera doan honetan *Amaiera* irakur daiteke Zineklub, Cinema Paradiso eta Haurrentzako domeketako zine eskaintzen pantailetan.

Zazpi hilabeteen 25na film eskaini dituzte Kultur Etxeko hiru zine egitasmoak, denetara 75 bat film. Ikusle kopuruari begira, aurreko urteetako zenbaterokoei eutsi zaie eta pozik agertu da Kultur Etxeko zinemako arduradun Iñaki Elorriaga. Zine-

«Hurrengo denboraldia urrian hasiko da ikusleen nahiak eta eskariak asetzeko»

klubak Algortan eta Areetan eskaintzen dituen filmak ikustera ia 9.200 pertsona hurbildu dira. Cinema Paradisok azpituludun jatorrizko bertsoian eskaintzen dituen filmek 3.240 ikusle erakarri dituzte. Amaitzeko, domeketako Haur Zineak 7.940 ume batu ditu. Denetara, 20.300 ikusle baino gehiagok jarraitu dute Kultur Etxeak prestatzen duen zinema eskaintza.

2004-2005 denboraldia hilabete bat lehe-



Kultur Etxeko zinema arduradun Iñaki Elorriaga

nago hasiko dela aurreratu du Elorriagak: "Zinema denboraldia berandu hasi eta goiz amaitzen delako keza askotan azaldu dute ikusleek, eta nahi horiek asetzeko asmoagaz, datorren denboraldia urrian hasiko da".

Bestalde, Zineklubak 25 urte daramatza filmen ondoren forum-a edo filmaren inguruko eztabaidak antolatzen, eta Cinema Paradisok, 13 bat urte. Forum hauen arrakasta filmaren arabera azaldu digu Elorriagak, "filma oso ona bada agian 50 pertsona batzen dira forumean, baina bestela batez beste 20 bat lagun izaten dira beti". Datorren urrira arte beraz, hauxe da *Amaiera*. m

Ez galdu > "Russian ark"



2002an Alexander Sokurov-ek, Errusian jaiotako zinema zuzendariak, "Russian ark" zuzendu zuen. Zinemagile honek hamabost film luze egin ditu orain arte. Hau hamalagurra da. Film liluragarri, erakargarri eta interesgarri honek oso era bitxian kontatzen du Errusiaren historia Pedro Lehena Handiaren garaitik (XVIII. mendetik XXI. mendera arte). Magiazko gertaera baten ondorioz Europako zinemagile batek XVIII. mendeko diplomatiko frantses batekin egingo du topo Petersburgo Deunaren Neguko Jauregian -gaur egun Hermitage museoa, munduko garrantzitsuenetako bat-. Honek laguntzaz jauregiaren pasabideetatik eta egongeletatik ibiliko da, eta bide batez, Errusiako historia ezagutuko du. Lan hau aurrera eramanez ahal izateko mila aktore eta "extra" baino gehiago bildu ziren hainbat hilabetez, hiru orkestrarekin batera, prestakuntza saioak egiteko. Behin dena prest jarrita, egun bakar batean eta plano sekuentzia bakarrean grabatu zen film osoa.



Argazkian, Deborah Coleman, aurtengo jaialdiari amaiera emango dion musikaria

Blues-ak izartutako hiru gauak

Deborah Coleman, Bobby Rush, Sardinas...

Blues zaleen gozamenarako ate joka dator Getxoko XVI. Nazioarteko Blues jaialdia. Blues estilo desberdin asko izango dira entzungai ekaineko bigarren asteburuan, iaz legez, Algortako Portu Zaharrean. Azken aldiaren blues-aren esparruan entzun daitezkeen bide berrien erakusgarri izango da aurtengo jaialdia arduradunen esanetan, eta 60.000 bat euroko aurrekontuagaz antolatu da.

Victor Aneiros galiziarra eta bere taldeak emango diote hasiera jaialdiari ekainaren 11n. Besteak beste, bere azken laneko kantak, *Live in Montreux*, entzun ahal izango ditu zaleak.

Bariku gauari amaiera emateko ardurak Eric Sardinas-ena izango da. Estilo ezberdin askoren eragina duten doinuen jabe da bera: delta-bluesa, country-bluesa, 60-70 hamarkadetako rocka... Zapatu gaua Bobby Rush blues-soula jorratzen duen Louisianako artista ezagunaren esku joango da, eta blues-soul, funk, folk eta gospel doinuak izango dira entzugai. Amaitzeko, nazioartean gero eta ospe handiagoa hartzen ari den Deborah Coleman-ek itxiko du jaialdia, ekainaren 13an, datorren urtera arte. Kontzertu guztiak doakoak dira eta 21:30ean hasiko dira. m

diskoak

Blink-182
Blink-182
Universal



San Diegoko punk-rock talde honen nerabezaro luzea amaitu da azkenean. Bosgarren disko honetan (hirukoteak orain arte egin duen esperimentalena), ia ez dago aspertzeko astirik. Erritmo gogorrazak albora uztzi ez badituzte ere, ukazina da apur bat haratago joateko asmoa daukatela. Heldutasuna dute atean, eta oraindik asko daukate esateko.

Franz Ferdinand
Franz Ferdinand
Domino



Britainia Handiko musika-prentsaren talderik gustukoena den hau ez da, ez, "bluff" hutsa. Mutil hauek Eskoziatik datozkigu, eta onak dira. Alex Kapranok abesten dituen kantuek irribarrea sortarazten dute aurpegian: pop baikorra, sutua eta dantzan egiteko modukoa. Franz Ferdinand-en musikak argaldu eta gazteagotu egiten du. Hasieratik amaieraraino gozatzen den diskoa.

Ekiozu
Seiurte
Melak



Esperimentazioaren bidean murgildu eta aro berri bati ekin dio Berrizko laukoteak bigarren disko honetan. Teknikoki oso lan zaindua egin dute, doinuak "helduagoak" dira, eta hitzek "pisu handiagoa" daukate. "Ahotsa ere gehiago landu dugu" diote. Hamaika abesti bildu dituzte diskoan; tartean, luxuzko kolaborazioa eta guzti: Gari, Hertzainak taldeak abeslari ohia.

Diskoa >
Per Palestina

Nazioarteko hamasei talde eta abeslarik Palestinaren aldeko disko bat grabatu berri dute. Euren artean Fermin Muguruza, Manu Chao, Amparanoia, Lluís LLach, Macaco, Ojos de Brujo eta Dusminguet taldeak dira guretzat ezagunen, baina gainontzekoak ere ez dira gutxiesteko modukoak: Idir, Obrint Pas, Al Mukawama, Samsara, Cheb Balowski, Dr. Calypso, Pomada, Mundo Moco eta Gnawa Diffusion. Diskoa Red de Enlace por Palestina elkarteak eta Boa banaketa-enpresaren egitasmoa da. Hip-hopetik hasi eta musika tradizionala zein kantautoreen doinuak batzen dira bertan.

Lehiaketa >

Erromo eta Pinuetako jaiak

Erromo eta Pinuetako jai batzordeak jakitera eman ditu VI Pop-Rock lehiaketan parte hartu nahi duten musika talde berriek bete beharreko arauak. Udako jaietan egingo den lehiaketa honetan parte hartzeko asmatan dabilen taldeek ekainaren 4a baino lehen aurkeztu beharko dute euren maketa hurrengo hiru leku hauetako batean: Erromoko Kultur Etxean, Pinuetako Kultur Etxean edota Erromoko liburutegian. Eta aipatutako hiru lekuetan aurkituko dituzte ere VI. Pop-Rock lehiaketan jarduteko orduan kontuan hartzeko betebeharrak.

Informazio gehiago: www.erromo.tk

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Egunerokoa (XVIII) Aldaketak

Kolore iluneko jantziak armairutik tiraderetara pasa ditut, aldaketa horrek neguko egun hitsak erabat baztertuko dituen itxaropenarekin. Iazko arropak errepasatzeari ekin diot jarraian, eta kolore bizienak hautatzen ahalegindu naiz. Dirdiratsu atera nahi dut kalera. Oinetako laranja jantzita atera naiz etxetik, neure buruaz ziur eta harro. Gaur ez nau ezerk garaituko. Jendeak mesfidati begiratzeko didala ohartu naiz metro geltokira iritsi eta berehala. Autokonfiantza indartzeko liburuak irakurtzen dituen horietakoa naizela pentsatuko du baten batek neure piura ikusita. Edo agian artista ero bat naizela, besteek esan dezaketenari beldurrik ez dion horietako bat. Ezaxolati begiratu diet, behiak trenari bezala. Goizak aurrera egin ahala, eguzkiak gogotsu jotzen duela ikusita, poztu egin naiz eginiko aukeraz. Jantziak bat datoz eguraldiarekin, ez baitago tokiz kanpoko arropak eramatea baino gauza okerragorik. Bai, gaurkoa egun biribila izango da. Lanean harriduraz agurtu naute lankideek, urteko egun gehientsuenetan soinean hileta koloreak daramatzan pertsona hain argiz beterik ikusterakoan. Zer dela eta aldaketa, galdetu didate jakin minez. Aldaketa? Oraindik ez da gertatu aldaketarik. Baina lasai, hura ere gertatzeaz da. Halaxe dio Günter Grassek, behintzat. Bera ere hasi da George Bushi geratzen zaizkion orduak kontatzen. Eta orain arte egin dituen iragarpenetan, Alemaniako idazlea ez omen da sekula okertu. Horregatik erabaki dut aurrerantzean kolore biziak jantziko ditudala, aldaketak (gertatzen denean) arropa egokiek harrapa nazan. 4


Poesiaren txanda da

Kalean dira Jon Gerediaga, Castillo Suarez eta Edu Zelaietaren lanak

«Orduan, egun baten,/ atzerriko hegazti ezezagun batzuek,/ garumbo sutrei niskiana/ ñigo-ñigo fitola talfu/ esaten zidatela iruditu zitzaidan./ Fitola balba, karpuki tui/ erantzun nien bapatean/ sekula santan esan ditudan/ hitz poetikoenak asmatuz». *Fitola balba karpuki tui* (Pamiela) halaxe izenburutu du Jon Gerediagak bere estreinako poema liburua. Fitola balba karpuki tui, adiera zehatzik ez duten hitzak dira, egileak irakurleen esku utzi nahi izan baitu haien interpretazioa. Izan ere, Gerediagaren ustean, «*amildegi bat dago hitzen eta errealtatearen artean; beti ez da korrespondentzia osoa ematen*».

«Min fisiko eta espiritualaren emaitza da Gerediagaren lana»

Antzerkiola Imaginariotik ezagutzen genuen Jon Gerediaga, gidolari dihardu eta bertan. Hitzak, beraz, eguneroko lanabes ditu. Ondo menperatzen ditu. Badaki komunikatzen. Alabaina, *Fitola balba karpuki tui*-n bildu dituen berbak bestelakoak dira. Min fisiko eta espiritualaren emaitza ditugu. Urtebete ohean igaro behar izan zuten Gerediagak, eta erabateko bakardade-



Jon Gerediagaren liburuaren azaleko irudia

an igaro zituen orduetan, bere buruarekin solasean emandako denboran, sortu ziren poematik gehienak. Zentzu horretan, poemategiko lehen ataleko bertsoek gaixotasunak eragindako barne krisiari erantzuten diote. Bigarren atalean, berriz, krisi ondoko inpresioak daude jasota, eta amaieran gogoeta prozesutik kanpo idatziriko poemak aurkituko ditugu.

Gerediagaren lanarekin batera, beste bi poesia liburuk ikusi dute argia azken egunetan. Batetik, Iban Zalduak anti-poesia izendatu duen Castillo Suarezen *Spam poemak* kaleratu du Elkarlaneanek, eta Edu Zelaietak *Mugaldekoak* aurkeztu du Susarekin. m

liburuak



Carlotaren egunkari...
Gemma Lienas
Erein

Carlotak hankaz gora ipiniko ditu eguneroko bizitzan normaltasun osoz bizi ohi ditugun zenbait egoera. Umorez askotan, amorruez eta ezintasunez gehienetan, UNESCOren ohorezko aipamena jaso zuen gazteentzako liburu honek emakumeak bizi duen egoera salatzen du.



Handik goitik..
Julen Gabiria
Elkar

Roman Alberdi mutikoak Euskal Herriko itzulian ikusiko du lehenengoz Gino Bartali txirrindulari handia... Giro ameslaria, ukitu surrealista eta bidegabekiariaren aurkako matxinadarako deia batzen dira 5. Igartza Saria irabazi duen eleberririk saillakaezin, eder eta hunkigarri honetan.

Prentsa >

Egunkariak eta irakurleak

El Correo dago lehen postuan, Deia bigarren, Gara laugarren eta Berria zazpigarren

Bizkaitarrok gertu eta urrun gertatzen direnen berrien zelako ezagutza daukagun jakin gura izan dugu oraingoan, eta era berean, hurbilekoen eta urrutikoen berri jasotzeko zein bide erabiltzen dugun. Horretarako, CIES Iritzi eta Merkatu Ikerketarako Zentruak egiten dituen azterketa eta inkestak datuak jaso ditugu. Zentru horrek iaz 2.142 inkesta egin zituen 1.015.000 bizkaitarren artean, eguneroko albisteak jasotzeko zein egunkari gurago dugun jakiteko. Inkeston arabera, bizkaitarren artean egunkaririk irakurriena El

Correo Español da, eta tirada dexente igotzen du domekatan.

Bigarren egunkaririk irakurriena da Deia, 85.000 irakurle. Bizkaitarren artean hirugarren egunkari irakurriena Marca kirol egunkaria da. Laugarren postuan agertzen da Gara, eta domeketan astegunetan baino ia 10.000 irakurle gehiago edukitzen ditu. Berria zazpigarren da zerrendan, 15.000 bizkaitarrek irakurtzen dutenez gero, EL Pais-ek Bizkaian daukan irakurle kopuru berdina. Horrela egiten dugu, beraz, bizkaitarrok egunerokoaren aukeraketa. m

IRAKURLEAK BIZKAIAN EGUNKARIEN ARABERA 2003

CIES Iritzi eta Merkatu Ikerketarako Zentruaren arabera, horrela banatu ziren iaz egunkariaren irakurleak Bizkaian. 1.015.000 bizkaitarren artean egindako 2.142 inkestatatik ondorioztatutako datuak dira.

	Irakurleak batez beste	lan egunak	zapatua	domeka
• El Correo.....	366.000	351.000	386.000	419.000
• Deia	85.000	88.000	74.000	81.000
• Marca	46.000	51.000	38.000	27.000
• Gara	40.000	39.000	34.000	49.000
• El Mundo P. V.	23.000	22.000	29.000	23.000
• El mundo dep.....	16.000	19.000	11.000	9.000
• Berria	15.000	16.000	20.000	10.000
• El Pais.....	15.000	12.000	20.000	23.000
• As	3.000	3.000	6.000	2.000
• Irakurleak guztira	471.000	455.000	497.000	528.000

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

telebista >

Betizu katea

Euskaltelek telebista digitaleko oinarritzko sortan eskaintzen dituen kateen artean Betizu umeei zuzendutako katea dago. Helduon artean askok ez dakigu Betizu saioa edota katea zer den ere, baina ume euskaldunek berehala, birritan entzun barik, ulertuko dute, eta behi batzuen istorioez, marrazki bizidunetaz, lehiaketez, musikaz... hasiko dira berbetan. Betizu saioa ETB-1en ematen da arratsaldero, baina aipatu dugunez, Euskaltelek umeei zuzendutako Betizu katea eskaintzen du telebista digitaleko oinarritzko sortan. Egutero 18 orduko programazioa dauka Betizu kateak eta dena euskaraz da. Bestetik, oinarritzko eskaintza-sorta horretan umeei zuzendutako Disney Channel katea ere badago; hau ostera, erderaz.

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu
94 491 13 37

UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa
Arrieta 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48900 Gernika
uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Koska Irratia	104.1
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0
Gorliz Irratia	107.8

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estaziaba

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50
merkeago
garbituko dizugu
autoa!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

irabazi UKrekin

MUGI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

× Tendinitis Esgintzeak
× Erreuma × Kiroleko

deitzen duenak
masaje bat debalde
irabaziko du!!

94 491 13 37
aldizkaria@euskalnet.net

Mendieta 2, SOPELE 17 67

Kafe Antzokia
Sarrerak
debalde!

02 asteazkena: GALATEA
ANTZERKI TALDEA 2 sarrera

04 ostirala: MAIO?KOPE
4 sarrera

10 ostiraka: FJORD
4 sarrera

94 49113 37

Kafe Antzokiak
antolatutako ekitaldietarako sarrerak lor ditzakezu.
UK-ra deitu eta kitto.

[sarean]

Errusiatik datorren ekaitza

Errusiako webgune bat **MP3 legalak merke-merke** saltzen hasi da

Denok dakigu Sarearen bidez abestiak pirateatu daitezkeela MP3 sistema erabiliz. Baina askotan topmanta birtual honetan ibiltzea ez da bat ere erreza. Denbora nahikotxo eman behar da abestiak bilatzen eta jaisten, eta batzuetan ziria ere sartzen digute honelakoetan gabiltzanean: abestiak jeisteko zenbait programa (iMesh, adibidez) gure ordenadorearen jabe egingo dira, gure ekintza guztiak espiaz eta publizitatea nonahi sartuz.

Beraz, askok nahiago du legearen barruan lortu musika. Orain arte musika legala lortzeko sistema arrakastatsua Apple-k sortutako iTunes dugu. Horren bidez, abesti bakoitza 99 zentimoan jasoko dugu (konexioagatik ordaindu behar duguna gehituta). Nahiko garestia, egia esan. Gauza da orain gutxi abian jarri dela webgune errusiar bat prezio hauek asko murriz-

tu dituen: minutu bakoitza hiru zentimo baino gutxiagoan. Gainera, eskaintzen duten katalogoa zabal-zabala da (mundu osoko artista ezagun eta ezezagunak dituzte) eta erabilitako formatua ez da MP3 bakarrik, guk erabakitako edozein izan daiteke (momentuan "egiten dute" guk eskatutako artxiboa, berdin dio MP3, ogg, wav,...).

Aukera honek hankaz gora jarri du musikaren mundua. Errusiarrek diote eskubide legal guztiak eskuratu dituztela, zeren eta bertako SGAEk onartzen ditu honelakoak egitea. Gauza da hemengo SGAEk ez duela honelako sistemaz ezta entzun nahi egin. Beraz, legearen barruan dago hemendik abesti horiek erostea? Hauxe al da etorkizuna? Izango ditugu abestiak zentimo gutxian? Eta diru hau egilearentzat (eta ez disketearentzat) izango al da? Batek daki. m

webgida

STANFORD ESPERIMENTUA

Sarean aurkitu ditugu >
Denetarik



Pedro Roman > Skunk Funk dendako arduraduna

“Hemengo dendariak pozik daude berton egindako arropa saldu ahal izateaz”



Pedro Roman, jantzi artean Skunk Funk dendan

Pedro Roman, Bilboko Skunk Funk dendako arduradunagaz, egon gara berbetan. 1998an ireki zuten denda, Plaza Barrian, baina jantziak –besteak beste– saltze hutsaz konforme egon ez eta euren diseinuak egiten hasi ziren. Gaur egun zabalkunde handia dauka Skunk Funk markak. Estatu osoko dendetara ailegatu ostean, Europako bidea hartu zuen Skunk Funk-ek orain lau urte, eta dagoeneko hainbat herrialdetan topa daiteke.

—Zein da Skunk Funk estiloa?

—Street estiloa. Hala esaten diote behintzat. Nahiko eroso, moda ikutuekin, gaur egun jendeak daroanari jaramon apur bat eginez. Jantzi gehienak zabalak dira, eta koloreari dagokionez denetik dugu.

—Bilbon zaudete. Euskal Herriko modaren hiriburua da Bilbo?

—Moda moten arabera da hori. Donostia, esaterako, moda mota baten hiriburua da. Bilboko kaletaragoa da, gazteentzako, jende zaharragoak ere badarabil.

Donostiakoa serioagoa da: marka ezagunak, eta berba batean esateko, garestiagoa.

—Arrakastatsu zabilzate, ezta?

—Bai. Euskadi osoan hasi ginen saltzen, eta dendariak oso pozik zeuden berton diseinutako eta ekoizitako zeozer saldu ahal izanda. Etxekoaren alde egin gura dute, nonbait. Gero, Espainiara irten ginen, eta 2000 urte-tik aurrera, Europara. Apurka-apurka, Erresuma Batura, Frantziara, Alemaniara eta berriki Suitzara ailegatu gara.

—Grow shop-a ere bazerete... Zer izan zen

lehenago, grow shopa ala jantziak?

—Biak ireki genituen aldi berean. Hasieran, kamiseta denda eta grow shopa (mariaren parafernalia) ginen batez ere. Kamiseta bat hartu eta marihuana hostoa eransten genion, esate baterako. Dena dela, grow shopa anekdota hutsa da orain, une batetik aurrera ez da-eta gehiago hazten. Bideklubekin bezala gertatzen da, lehia handia dago. Jantzien alorrean, aldiz, ez dugu lehiakiderik, gure marka ez delako saltzen Bizkaiko inongo dendatan, gurean izan ezik. Honenbestez, grow shopa dendaren beste atal bat da, osagarriena, mu-

«Bilboko moda kaletarra da, gazteentzako, zaharragoek ere badaroen arren»

sikarena edo zapatena diren bezala, horiek ere badauzkagu eta.

—Zuen jantzi estiloa marihuanaren estetikari lotuta dago, orduan?

—Hasieran, dezente. Gaur egun ere hala da neurri handi batean, baina denetarik dago.

—Bide batez esateko: grow shopdunak nahiko larri zentiltzen hauteskunderen aurretik, PPK irabaziz gero zuentzat hondamendia etor zitekeelakoan...

—Bai. Eta ez pentsa, orain ere ez dakigu erabat ziur zer gertatuko den. Ez da ezer aldatu orainoz; besteek ezarri zuten legea geldiarazi arte... Ez dago batera argi zer sal daitekeen leku bakoitzean ete zer ez. Legea modu askotara uler daiteke, eta beti gabiltza zalantzan, edozein unetan daukagun guztia kenduko ote diguten, edo besterik gabe denda itxiko ote diguten. Bestetik, ematen du Eusko Jaurlaritzak argi daukala helburu terapeutikoarekin erabiltzearena. Baina merkatarioi dagokigunez, auskalo. Guretzat bereziki pentsatutako lege bat egin beharko lukete. Bien bitartean... m

[akabuko punte]

Berangoko Maria Teresa Bidaurrazaga

“Ze ixen gare herri duztin? Danak ezetu, Fulano, Mengano... ta oiñ ez dozu iñor ezetuten”



Argazkian, Maria Teresa Bidaurrazaga

Maria Teresa Bidaurrazagagaz egon gara oraingoan. 73 urte daukaz eta Berangoko metro geltoki ganeko inguruan bizi da. Uribe Kostako hainbat lekutan legez, etxegintza lanak daude inguru hartan ere. Triste gogoratzen ditu Maria Teresak lehengo zelai zabalak eta arbola ugariak.

—Hemen bixi ixen naz beti, baia hain diferente ixeten zan... esnekaz ibilte nintzen ta hemeti bajate nintzen estaziñora, baia gero dana kanbia da ta... kanbia da lar. Oiñ hemen zera [bidea] doa, ta gero hortu etzek; terreno saldu ieun ta oiñ saldu ezkeron bakizu ze iten dozun, libertade emon.

—Aldai baserri zaharrekoa zara zu; hor lotuko da edo bota egingo dute?

—Ez dakit, remodela ein beharko da, bota barruko dana ta... Ederra da, ez dao txarto, baia ezetu dou dana arbola hemen ta oiñ dana kamiño, dana jente, ta gurezat da... Ademas honek adosadok, Berangoko leku politen politenen ein

deure adosado batzuk... ze hor be ze berde eon dan. Ondiño, beti esaten dot, han goien deku terreno, ta ondiño harek bere balio eingo dau. Oiñarten ez deu balio ixen, ze rural da, baie balio ingo deu ze hamen ya ez da lotuko terrenorik. Horrenbeste jente nondi dator? Ez bagarre ixen lau etzalde. Ze ixen gare herri duztin? Danak ezetu, Fulano, Mengano... ta oiñ ez dozu iñor ezetuten. Gaztek kanbia direlaxon ta zaharrak ya ez dozulaxon ezetuten... zatoz trenan ta... ze triste, ezta? Lehen polite ixeten zan.

—Gaztetik hasi zinen beharrean?

—Behar, astok lez eiten zan behar; ez oingo gazten modun. Hamairu urtegaz

hasi nintzen Bilbora yoten esne errepartiduten; ama yausi zan gaixorik ta... Trenak ordurik ordure; dana bustite... ze aurten euri asko ein dau baia ordun beti ixeten zan holan. Oiñ hamar minutu hamar minutu tren. Apurtxu bet belu etor das-kuz guri gauze onak.

“Azkorri barrio ixeten zan. Oiñ diñoe playa de Azkorri, danak esate dotze Azkorri baia beti ixen da hori Gorrondatze”

—Beste gauzetarako astirik bazeneukan? —Nire bixio handiena ixen da hondartza eta eguzki. Gorrondatzera yote nintzen, noz o noz Gorlizera baia jeneralen Gorrondatzera. Hemeti danak yote gintzen hara. Kremakaz eta gauzakaz ez, eh? Akorda naz behin, ondiño urte gitzi ezcondute ta badator beharreti nire gizona Santa Luzire yoteko, ta ni lotsaz, ze eguzkik abrasa; ze krema hartuko neun ordun? Merkeena seguramente, ta ni gorritute.

Baño ez, ez daste iñoz ure gustau, uger ez. Niri gustaten dat ure bero ta honek urek beti dauz hotzak. Horregatik ure ez dat gustate ixen; busti traje de baño... ta eguzki hartzen.

—Hori Gorrondatxe hondartza izan da beti, ezta?

—Azkorri barrio ixeten zan. Oiñ diñoe playa de Azkorri, danak esate dotzu Azkorri baia beti ixen da hori Gorrondatze; ademas hau kale da Gorrondatze bidea. Politau dala Azkorri igual pentsako daure. Lehen yoten gintzen gure estiloko pobre danak, Getxoko betikok ta Berangokok. m

[bertako euskeran ganen]

Esakere “On bille, on bille... bonbille!”



Zer esan gure dau esakerak? Ba, sarriten onena topa guren gabiltzez, eta hainbeste aitu ta konpara, akabun txarrenagaz lotzen gara, guk albora itxi doguzen “elementu” onak eronta egoten direzelako ordureko. Halan pasaten ei dako sarri, andra edo gizon onena, ederrena eta abar topa guren dabillenari. Eta zer da “bonbille”? Honek esakerek ez deko zerikusirik argikez edo bonbillekaz: “daunen borbon, ez daunen egon” esakeran *egon/bonbon* berbak esakereri “musike” emoten dautzen lez, gure esakera onetan *on bille/bonbille* dekuz horretarako.

(G. Garatek baturiko esakera dozue hau. Beran “Atsotitzak” beharran topako dozue).

Gurberbake 40

ESAKERA ZAHAR BATZUK

Testua: Xabi Bilbao

Hamen dekozuez, beste batzuten lez, Azkue handik baturiko esakera batzuk (Euskalerraren Yakintza beharran topako dozuez). Igerteko esakera batzuk direz bider honetan: ia ataraten dozuen zer aitetuten daun bakotxak!

Zer da?

—Puntan punta bat, atzean zulo bat.

—Kenduaz hazi eta gehituten dana.

—Balio ez yateko eta ha barik ezin bizi.

—Urten hasikeran lodi-lodi ta akabuan argal-argal (egokitute)

—Beti handituten, eta halan bere lekutik ez da mogiduten. (egokitute)

—Kutxa txiker bat aizkonaz beterik.

—Etxanik dago, yagiko balitz, zerua yoko leuke; eskuak baleukaz, lapurrak atxitu; berbetan baleki, guztia esan.

—Urten behin baiño ez dau alkondare aldatuten. (egokitute)

—Guztia estaltzen dau baiña ura ez.

—Itsasoan edan eta mendian txiz egiten dauena.

—Zerutik bota eta hausten ez dena, urrea bota ta hausten dena.

—Itxirik, makilea; zabalik, teilatua.

—Mendi biren arteko orroa.

—Hutsa, zutunik ezin egon; beterik, edozelan.

—Lapikon sartu ta egosten dana, eta yaten dogunen ikusten ez dana.

—Gizon txiker txapel handi.

—Ikusten dot, ondoan dot, eta ezin atrapa.

—Puntan punta bi, atzean zulo bi.

—Luze da, sokea lez; hagiñek dekoz, otsoak lez.

Erantzunak: orrotza, zulo, diru edo aire, egutegi, arbola, agoa, bide, suga, edurre, hedota, papela, gwardasola, uzkerria, zakur, gatz, perretxiko, gertzepe, artezik, sasi.

I

I aki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta



Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO



Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10 T: 4910821 ALGORTA

HARTU TXANDA

ALBEkumeak

Zenbat gara? Lau, bi, bost, zazpi?

Argazkian ikusgai dituzuenak San Nikolas Ikastolako 5.maila D-ko ikasleak dira. Buruhauste nahikotxo ematen dute, baina jator askoak dira. Denbora galdu barik, goazen eurei buruzko sekretutxoak kontatzera!

Testua: Nahikari Ayo / Argazkia: A. Mentxaka

“Beste gelakoak UKn ikusi ditugu, eta gu noiz?” Azken hilabete horixe izaten da egunero egiten didaten galdera, atetik sartu bezain laster. Aldizkaria eskuartean daukatenean, espero dut poztea eta idatzi dudanarekin ados egotea.

Agian maltzurra naiz, baina zigor gisa beti jartzen dut egun horretan landutako abestia edo bertso-sorta buruz ikastea. Batzuetan zigorra Nekane andereñoarentzat izaten da, aste guztian zehar entzun behar dituelako abesten. Orain askok ulertuko duzue izenburua. *Zenbat gara?*, Orioko bardoaren abesti famatua. Hau ikasi behar izan zuten eta gainera orain edozein momentutan abesten dute. Batzuetan alde ona izaten dute zigorre!



San Nikolas ikastolako 5.D-ko bertsolaritxoak

Bertsolari iaioak ere baditugu. Batzuk altxatu eta guzti egiten dira abesteko. Ikasturte hasieratik hona hobera egin dute eta nola gainera! Kopia ederrak egiten dituzte eta oraingo zortziko txikiak izugarri onak dira. Edozertaz

egiten dituzte bertsoak eta abestu ere ozen abesten dituzte. Horixe baita behar dena bertsotarako: lotsa etxean uztea eta ozen abestea. Eman dute, beraz, bertsolari izateko lehen pausoa, ea bide horri eusten dioten. m

«Batzuk altxatu eta guzti egiten dira abesteko»

ALBEko gaztetxoak



Arrate Illaro

TXIKITIK HANDIRA

Lehenengo puntua emanda

Aurtengo leloa da “Alkarregaz heldu”, batuko ditu hainbat gazte eta heldu. Euskal Herria elkartu dela ematen du, bestela ezin baita euskara mantendu.

Lau oinak emanda

Euskararen aldeko jaialdi handia, aurtengo ikastolentzat bigarren aldia. Hizkuntzagaz mantendu nahi dogu haria, horren erakusgarri da Ibilaldia.

Azken puntua emanda

Herri guztiak euren hizkuntza mantentzen saiatzen dira, baina gureak izan ohi ditu horrenbeste tira-bira. Maiatz aldean euskara helmuga duen bidea hasi da, **zuen laguntza behar dugu ta ETORRI IBILALDIRA!**



Uztailean ENGLISH SATURDAY PLAY-SCHOOL

- Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan dauden haur euskaldunentzako INGELES ikastaroak
- Umeak primeran pasatzeko milaka ekintza
 - Aurten Zubilleta ikastolan
 - Talde txikiak
 - Autobus zerbitzua

Informazioa eta izena emateko:

Didak-Hamilton Idiomas / Dr. Landa, 6. 48600 Sopela. Tel: 94 676 30 12



San Nikolas ikastola 40. urteurren ospakizunak ekainak 11-12



EKAINAK 11 OSTIRALA

18:00: Umeentzako ekitaldiak 19:00ak arte.
18:30: D.B.H.-ko azken mailako ikasleei omenaldia gimnasioan.
19:00: Umeentzako txokolatada patioan.
19:30: Askaritxoa jantokian D.B.H.-ko 4. mailako ikasle eta familiek.
20:00: Fanfare eta sardinada beheko patioan 22:00ak arte.

EKAINAK 12 LARUNBATA

10:45: Danborrada San Nikolas enparantatik irten eta Ikastolan bukatuko da.
12:00: 40.urteurreneko ekitaldia-protokoloa. Ordezkariek: Bizkaiko Ikastolak, Partaide, Ikastolen Elkarte, Eusko Jauriaritza eta Udala. Kimetz abesbatzak 40. urteurreneko kanta abestuko du eta duela 40 urteko ikasle talde bati oroi-garria emango zaio.
12:45: Ikasleen ekitaldiak.
15:00: Herri bazkaria jantokian.
16:00: Umeentzako jolasak eta puzkarriak beheko patioan.
17:00: Eriz Magoa.
18:00: Umeentzako karaokea beheko patioan.
19:00: Herri txorizada beheko patioan.
20:00: Diskoteka beheko patioan, 22:00ak arte.

**Egun osoan txozna zabalik eta ikastolako zapi eta pin-en salmenta.
Musika eta jai-giro ederra bi egunetan.**



gaizka escudero / villabotas-ekoa



itsaso arana / jolastoki-koa

Piper berde beteak

Hasteko, piperrei buztana eta haziak kendu, oliba oliotan apur bat bigundu, eta gero olio zurgatu. Piper hauek gorde. Bestetik betea prestatuko dugu. Horretarako besamela egin behar da. Ipin lapiko batean sutan 100 gr. gurin eta beste horrenbeste oliba olio. Gehitu tipula bat eta porru bat ondo txikituak. Biguntzen direnean gazgabeturiko makailua bota eta egin apur bat. Gatza, piperpima eta intxaur moskatu apur bat bota. Gero irina gehitu (200 gr. inguru) eta eragin dena ondo lotu arte. Ondoren, apurka-apurka esnea gehitu eta aldi berean irabiatu guztia ore loditu arte. Besamela epeltzen utzi eta gero piperretan sartu. Piper beteak albardatu eta frijitu. Kitto. On egin! ^m

osagaiak

• piper berdeak • besamela egiteko: 100 gr. gurina eta beste horrenbeste oliba olio, litro bat esne • gazgabetuko makailua • pipermina • intxaur muskatua



Gure txakolina

Mendeetan zehar Bizkaia mahasti handia izan da. Adibidez, Portugaleteko sortze aktan honako pribilegioa eman zion Juan I erregeak herriari: kanpoko untziek ezin zuten herrian beste leku batzuetako ardorik deskargatu, behintzat herrian bertan egindako horrenbeste txakolin untziratzen ez bazuten.

Bizkaiko Txakolina jatorrizko izendapena Bakio eta Lekeitioko kosta-mahastiak hartzen ditu: badira Enkarterrietan ere mahastiak, Balmasedan, Güeñesen, Galdamesen, Zallan eta batzuk Orduña aldean. Bodegak aipatu ditugun inguru hauetan daude.

Batez ere bertokoak diren mahats mota bi erabiltzen dira txakolina egiteko: hodarrabi zuria eta hondarrabi beltza. Oso mahats usaintsuak dira biak. *Folle blanche* mahats mota ere onartzen du jatorri izendapen honetaz arduratzen den Kontseiluak. Mahats-biltzea udazkenaren hasieran egiten da, azukrearen eta garratzasunaren arteko oreka egokia izaten den momentuan.

Ardo hauei dagokionez, ezagunenak zuriak dira. Ardo arinak dira, sikuak eta edateko oso errazak. Graduazioa 9,5 eta 11,5 artekoa edukitzen dute. Txakolin gorria ez da horrenbeste egiten eta ahoan ikutu garratztoa izaten du; graduazioz zurien parekoa izaten da. Eta azkenik, txakolin beltzak geratzen zaizkigu, hauek dira ezezagunenak eta oso gutxi ekoizten dira. Hauetan bai, nabaria da garratzasuna.

Ardo honen ekoizpenaren parte txiki bat atzerrira saltzen da, beste bat Madril eta Bartzelonan banatzen da, baina gehiena hementxe, Euskal Herrian bertan, saltzen da. ^m

Tatos Café

giro eta musika ona Areetako Zonan



Argazkian, Alberto Ortaza

Areetako "Zona" pubez betetako tokia izan da beti. Baina bada jai giro mota horretatik ihes egiten duen tabernarik ere: Tatos café dugu horren lekuko. Gaur nagusi den jai musika barik, blues, jazz, funky, rock and roll eta bestelakoak entzun daitezke bertan, bestelako giroa (eta ez horregatik lasaiagoa) bilatzen dutenentzat, alegia.

Bestalde, kafe bereziak eta infusio zein irabiaki natural gozoak eskaintzen dituzte Tatosen; azkeneko hauek dira etxeko berezitasuna.

Iluntzean, berriz, mokadutxu bat har-

tzeko edo eta afaltzeko aukera ere badago; izan ere, otartekoak, "fundidoak", pernila eta gazta zatiak, entsaladak eta abar dasta daitezke. Eguneko ordu horietan biltzen da jende gehien Tatos cafén, asteakabue-tan ez ezik astegunetan ere.

Horrez gain, irudi lanen erakusketak ere ikus daitezke bertan noizean behin. Tabernaren jabea den Alberto Ortazak erakusketa horiek sarriago eskaintzea du helburu. ^m

TATOS CAFE
Iturrigorri kalea AREETA
Telefona: 94 464 96 70

Asador



- ¥ Zabalik egunero
- ¥ Eguneroko menuak
- ¥ Enpresa menuak
- ¥ Menuak norberaren gustura
- ¥ Egunero karta berezia
- ¥ Gaez dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
- ¥ Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea



adituak gara makailo eta kazolatxoak prestatzen

Bilbo-Plentzia errepeidea
Elexalde 9, Barrika - Tlf. 94 677 30 09

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



ITXASGANE
prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

OLATXO
altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREETA T.: 94 464 89 94
Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA T.: 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

<p>URA t</p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Gogorik ez badaukazu ere, zure txanda ailegatu da; orain ez daukazu beste aukerarik: beste guztiak bezala egin beharko duzu. Kafea hartzen duzun bakoitzean, oso urduri jartzen zara; kaltegarria baldin bada, zergatik ez duzu uzten?</p>	<p>OTSOA t</p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Ez zinen konturatu gezurra esaten ari zitzaizula? Esaten dizuten guztia sinesten duzu beti, inuzente hori, eta gero ziria sartzen dizute barru-barruraino; erne egoten jakin behar duzu, <i>Otsoa</i>.</p>	<p>ADARRA t</p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Lagunen artean gogor kritikatzan dituzu telebista-saio batzuk, baina etxean horietan begira egoten zara. Laster udako merkealdiak hasiko dira; probetxu atera iczaiezu, arropa prezio hobean lortzeko.</p>
<p>AITZURRA t</p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Ez daukazuna ere gastatzen jarraitzen baduzu, gaizki amaituko duzu; horrela ezin da, <i>Aitzurra</i>. Nahiko baldarra zaren, ukitzen duzun guztia apurtu egin duzu; kontu handiagoz zaindu behar dira gauzak.</p>	<p>HOSTOA t</p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Norbaitegaz berba egin gura duzunean, dei galdua egiten diozu sakeleko telefonora; ez izan horren zekena: zuk ere deitu. Jaiieguna izan arren, beharra burutik kendu ezinik zabilta; laneko arazoez arduratzeko izango duzu denbora; orain, ahaztu.</p>	<p>EGUZKIA t</p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Bizilagunak askotan kexatu zaizkizu, baina berdin jarraitzen duzu: musika ozonegi entzuten duzu. Nabari da azkenaldian kirol gehiago egiten hasi zarela; horrela jarraituz gero, udarako sasoi betean egongo zara.</p>
<p>GARIA t</p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Beldurrezko filmak ikusiz gero, gauean ezin duzu lorik egin; halere, behin eta berriz ikusten dituzu. Alferrik zabilta, <i>Garia</i>: dagoeneko badakite zelakoa zaren, eta hemendik aurrera zure gezurrak ez ditu inork sinetsiko.</p>	<p>LASTOA t</p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Leloak errepikatzen primerakoa zara, baina leloak sortzeko, ordea, ez daukazu batere irudimenik. Zer moduz doa zure bizimodu berria? Lehengo ohitura berekin jarraitzen duzula? Ez da harriztekoa.</p>	<p>IRATZEA t</p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Zuhaitzaren puntan hazten den azken hosto bakartia bezalakoa zarela esan daiteke; jendeagaz berba egin behar duzu. Horregatik etengabe begiratzen diozun horrek ez dizu jaramonik egin, baina ez amorerik eman.</p>
<p>META t</p> <p>(Irailak 17 urriak 16) Argi gorri guztiak piztu dira dagoeneko, <i>Meta</i>: laster dieta zorrotza hasi behar duzu. Lankide berriak aritzea ez da sekula erraza izaten, baina apurka-apurka ohitzen joango zara.</p>	<p>HAZIA t</p> <p>(Urriak 17 azaroak 15) Zu barik ere gauzak aurrera egiten dutela argi geratu da; zer uste zenuen ba, mundua geratuko zela? Azken egunotan zure begiradak argia galdu du. Zer gertatzen zaizu? Hobe duzu norbaitegaz berba egin.</p>	<p>NEGUA t</p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Gezurra da zaplaztekoa hartu ostean aurpegiaren beste aldean erakusten duzun horietakoa zarela. Hasi zaitez bainujantzia armairutik ateratzen, eta hondartzara joan zaitez eguzkiaren lehenengo printzak hartzera.</p>

mungia
oKINdegia



Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



KEKO

denborapasa

HITZ GURUTZATU

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Taula honek hamabi beltzune ditu.

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Zabalpen. 2. Aditzera emanak. 3. Zuk naramazu eta haiek... Bat. 4. Bibliako lehen emakumea. Antzinako kalkulu-taula. 5. Tontor. Gela handi eta zabal. 6. Oxigenoaren sinbolo kimikoa. Bi ken bat. Zero. (Zah.) Zakur. 7. Merkataria. 8. Pertiako enperadorea. (Infin.) Ukitu. Iodoaren sinbolo kimikoa. 9. Kasik. Random Acces Memory. Atzizkia. 10. Erne! Inguru.

Goitik behera

1. Udal hautetsia. 2. Euskal lurraldea. Saudi Arabiako hiriburua. 3. Nafarroako herria, Larraunen. Iodoa. 4. Ofizial turkiarra. Heldu naiz. 5. Tibeteko apez budista. Hizki grekoa. Euskal alderdi politikoa. 6. Arrain mota. Aldizkari hau. 7. Urteko sasoiak. Röntgen. 8. Haiei, nuke. Letoniako hiriburua. 9. Da. Iparraldean, mese-dez. India. 10. Eguzki. Oraindik.

Soluzioak

O	N	A	R	A	B	A	D	I	A	V
N	I	G	M	R	A	M	R	A	I	A
I	K	I	U	K	O	R	I	Z	I	R
A	R	I	A	T	U	L	T	R	A	T
R	O	O	B	A	T	B	A	O		
O	E	T	A	R	E	A	I	N	G	A
O	K	A	B	A	V	A	B	A	E	B
I	A	M	A	T	E	N	A	R	A	N
K	A	R	A	R	I	A	K	I	A	K
D	E	N	D	E	K	U	N	D	E	K

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Bere egiazko izena David Robert Jones da
- "Duke Zuria" ezizenez ere ezaguna da
- Uda partean Bilbon kontzertua eskainiko du

> Aurrekoaren erantzuna: Lou Reed

> Irabazlea: **Andoni Elustondo (Getxo) ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Gardoki Jatetxea



Mendieta kalea 47

Sopela

Telf: erreserbak: 94 676 07 61

astelehenetan itxita



ALGORTAKO «EGUNKARIAK» DENDAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

San Inazio eskola, 1924-25

Orain dela gutxi Algortako ikastetxe historiko honen beste argazki bat argitaratu genuen. Bigarren hau heldu zaigu eta nahiz eta eskola berekoa izan, irudiak argia ikustea merezi duelakoan gaude. Izan ere, argazkian agertzen diren laguneren izenak eta euren jatorrizko auzoak jakin ahal izan ditugu (begiratu azpiko izen zerrenda). Lan hau eskola horretako ikasle ohi batek hartu zuen bere gain: Ambrosio Igual (GB) algortarra.

Lehenengo lerroa: Juan Ormaetxea (Leioa), Ramiro Mota (Portu Zaharra), Pedro Uria (Portu Zaharra), Anton Mirandona (Jolastoki), Salvador Mayoral (Jolastoki), Txomin Ugarte (Jolastoki), *Noni*, Andresin Uriarte (Portu Zaharra), Pedro Bilbao (Portu Zaharra), Luis Mari Basañez (San Inazio), Jose Mari Gorostiaga (San Inazio), Enrique Alonso (Jolastoki), Jose Etxeandia (Alango).

Bigarren lerroa: Ignacio Gorostiaga (San Inazio), Julian Zabala (Alango), Mario Albeniz (Portu Zaharra), Pedro Torrontegi (San Inazio), Marcos Basauri (Alango), Don Tirso P. de Albeniz (Irakaslea), Manolo Gutierrez (Alango), Ambrosio Igual (Alango), Txomin Gerediaga (Alango), Adriano Hornes (Portu Zaharra), Angel Garcia (Jolastoki), Juan Urrutia (Alango), Ramiro Mota (Portu Zaharra).

Hirugarren lerroa: Isidro Fullaondo (Alango), Juan Andikoetxea (Jolastoki), Enrique Gutierrez (Alango), Izkoa Santos (Portu Zaharra), Bidea (Jolastoki), Iquino Lezamiz (Jolastoki), Goyo (?), Anton Fernandez (Alango), Arturo Erkoreka (Jolastoki), Angel Blanco (Alango), Pedro Benito (Alango), Jose Aretxabala (Jolastoki).

Laugarren lerroa: Miguel Alonso (Jolastoki), Anastasio San Sebastian (Portu Zaharra), Eugenio Egia (Alango), Bienvenido Santos (Alango), Felix Ugarte (Jolastoki), Gondra (Jolastoki), Juanito Albeniz (Portu Zaharra), Alberto Blanco (Alango).

* Ambrosio Igualek bildutako informazioa



gure posta elektroniko berria

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

MARTIN FIZ > atleta ohia

“Txapeldun olinpikoa naizela egiten dut amets”



Definitu ezazu zeure burua berba bitan bakarrik. Xalo xumea.

Zein animaliagaz zatoz bat? Gepardoagaz (Zelan ez! Munduko animaliarik azkarrena 110 kilometro orduko abiadurara hel daiteke).

Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?

Iaz kaleratu nuen *Correr con Martín Fiz* liburuaren bigarren zatia.

Eta zein pertsonaia antzetzuko zenuke film batean?

Forrest Gump. Batez ere, korrika hasten denean bat-batean, eta hilabeteak emoten dituen horrela, Estatu Batuetan barrena.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Pasionaria eta Che Guevara.

Zure jakirik gogokoena. Marmitakoa.

Aitortu dezakezun bizio bat.

Basobete ardo, baina ardoak ona izan behar du.

Oporretara joateko lekurik aproposena. Mallorca.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen? Gezurra.

Zer jantzen duzu lo egiteko? Pijama eta irratia.

Ezin zaitezke bizi... Korrika egin barik. Nire bizitzako egunak amaitu arte beti jantziko ditut zapatilak korrika egiteko.

Zer gordetzen duzu sakeletan? Kafe baterako xox batzuk.

Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena.

Bainu-jantzi estu bat, guztia nabarmentzen duten horietakoa.

Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?

Azkenean, BAKEA (Horrela, letra larriakaz).

Ohitura txarren bat... Agian, nireak diren gauzakaz txukunegia izatea.

...Eta sineskeriaren bat.

Lehiatzen hasi aurretik, bizarra uztea edo erabat ez moztea.

Zertan gustatuko litzaizuke haragitzea? Neure buruan.

Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa?

Maratoiko txapeldun olinpikoa naizela amesten dut oraindik ere.

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?

Orain dela hilabete gutxi, Miguel Churruca aitagarreba hil zenean.

Azken erokeria. Gau zoro bat lagunakaz. Behar nuen parranda hura. m

LABURREAN— “Korrika egiteak barruan daramagun piztia baretu egiten du”, dio; hori egia bada, bere piztia ondo menderatuta dauka. Espainiar Estatuko maratoilarien artean palmaresik onena daukan Martin Fiz (Gasteiz, 1963) atleta gogorren eredu dugu, krolean eta atletismoan eskarmentua hartutakoa. 1993an hasi zuen arrakasta bolada maratoian, urrezko domina irabazi zuenean Helsinkin. Europako txapelduna (94), munduko txapelduna (95) eta txapeldunordea (97) izatea, eta Atlantako Joko Olinpikoetan (96) laugarren postua lortu ditu. Fizek utzi ditu albora goi mailako lasterketak, baina ez du horien falta sentitzen, “nire bizitzak kirolari lotuta jarraitzen du-eta”; izan ere, gaur egun *Runner's World* aldizkariaren zuzendaria dugu, “eta zale huts legez korrika egiten jarraitzen dut”.

bizkaiko ikastolen aldeko jaia

ibilaldia

maiatzaren
30 ean

leioan

alkarregaz
heldu

www.ibilaldia.net